

Arizmendiarrieta

1915 - 1976



KOOPERAZIOAREN APOSTOLUA

APÓSTOL DE LA COOPERACIÓN

Fernando Molina





ARIZMENDIARRIETAREN | LAGUNAK

Arizmendiarrrieta

1915 - 1976

KOOPERAZIOAREN APOSTOLUA

APÓSTOL DE LA COOPERACIÓN

Fernando Molina

Jose Maria Ormaetxea eta Alfontso
Gorroñogoitiari eskainia, gizon
jenial eta berdingabe haren bizitza
berreskuratzeko lanean biek in emandako
urte gogoangarriak akorduan.

Para José María Ormaechea y Alfonso
Gorroñogoitia, en recuerdo de los
dos memorables años de trabajo con
ambos, dedicados a recuperar la vida
de este hombre genial y único.

1	Iturbe baserria El caserío Iturbe.....	10
2	Erlijio bokazioa La vocación religiosa.....	12
3	Gasteizko espiritualtasun mugimendua El movimiento de espiritualidad de Vitoria	14
4	Apaizgai euskalduna Un seminarista euskaldun	16
5	Bake gizona gerran Hombre de paz en la guerra	18
6	Don Rufino Don Rufino.....	20
7	Apaiz ministerioa El ministerio sacerdotal.....	22
8	Arrasate: ebanjelizaziorako lurra Mondragón: tierra de evangelización	24
9	Hezkuntza La educación	26
10	Gazte langileak Los jóvenes obreros.....	28
11	Den-denean apaiz En todo sacerdote	30

12	Komunitatearen aldeko sakrifizioa El sacrificio por la comunidad	32
13	Gizarte apostolutza El apostolado social	34
14	Elizbarrutiko apaiza Un sacerdote diocesano	36
15	Kristau enpresa La empresa cristiana	38
16	Lankidetzta La cooperación del trabajo	40
17	Apaizgoa santutasunerako bide gisa El sacerdocio como vehículo de santidad	42
18	Inpertsonalizazioa La impersonalización	44
19	Bere burua muturreraino ematea La entrega hasta el extremo	46
20	Gaixotasuna La enfermedad	48
21	Sufrimendua eta mina El sufrimiento y el dolor	50
22	Beti aurrera Siempre adelante	52

Bizitza antzerki bihurtuta ikuskizun arrakastatsua lortzen duen gizarte batean, ikusten ez den oro existitzen ez dela dirudienean, arrakasta pertsonala portaeren arrazoi bihurtzen denean, plazer indibidual eta berehalakoa bilatzearen balioak gailentzen direnean, hainbat figurak aitortza merezi dute, beren portaeren eredugarritasunagatik eta egindako lanaren balioagatik.

Merezi dute, eragina eta boterea galtzeko edo irabazteko eszenatoki bihurtu diren komunikabideetan protagonismoa bilatu beharrean, behar zehatzei irtenbideak bilatzeko ahalegin pertsonala egitea erabaki dutelako.

Hainbat pertsonak aitortza merezi dute, beren proposamenengatik eta proiektuen kemenagatik, belaunaldi oso baten ongizatearen sustatzaile eta aktore bihurtu direlako, konpromiso sozio-ekonomiko baten protagonistak direlako, enpresa egiteko molde berri baten bultzatzaileak direlako.

Jose Maria jauna pertsonen kategoria horretako parte da. Hark abiarazitako Esperientzia Kooperatiboa konpromiso

En una sociedad en la que la teatralización de la vida es un espectáculo con éxito, cuando parece que nada existiera si no es visible, cuando el éxito personal es el móvil de los comportamientos, cuando se imponen los valores de la búsqueda del placer individual e inmediato, hay figuras que merecen ser reconocidas por la ejemplaridad de sus comportamientos y el valor de la labor realizada.

Lo merecen porque, frente a la búsqueda de protagonismo en los medios de comunicación, convertidos en escenarios en los que se pierde o gana influencia y poder, han optado por el empeño personal en la búsqueda de soluciones a necesidades concretas.

Existen personajes que merecen ser reconocidos por sus propuestas y el empuje de sus proyectos, porque se han convertido en promotores y actores del bienestar de toda una generación, porque son protagonistas de un compromiso socio económico, porque son impulsores de un nuevo modo de hacer empresa.

Don José María forma parte de esta categoría de personas. La Experiencia

sozialean gizakiak duen zentraltasunetik hazten da, gizartea eraldatzeko lanaren balioaren errekonozimendutik.

Jose Maria jaunaren axiologiaren sustraiak fede sakona eta espiritualtasuna dira, apaiz hitzarekin eta obra kooperatiboarekin guztiz bat eginda.

Arizmendiarietaren Lagunak Elkartea biografia espiritual labur hau aurkezten du gaur, bere eraketan lehenengo eginkizun gisa agertzen baita “Jose M. Arizmendiarietaren figura bizirik mantentzea: haren biografia pertsonala, inspiraziotzat zituen balio humanistak, ideia sozialak, dimentsio espirituala, ekarpen praktikoak eta haren bizitzako edozein alderdi esanguratsu”.

Arrasate, 2011ko maiatza
Arizmendiarietaren Lagunak Elkartea
Jose Maria Larramendi,
Lehendakari

Cooperativa emprendida por él, crece desde la centralidad de la persona humana en su compromiso social y el reconocimiento del valor del trabajo transformador de la sociedad.

La axiología de Don José María hunde sus raíces en una fe profunda y una espiritualidad en perfecta sintonía entre su palabra de sacerdote y su obra cooperativa.

Arizmendiarietaren Lagunak Elkartea presenta hoy esta breve biografía espiritual, porque en su fundación figura como primer cometido el “mantener viva la figura de D. José M^a Arizmendiarieta: su biografía personal, los valores humanistas en los que se inspiró, su ideario social, su dimensión espiritual, sus aportaciones prácticas y cualquier otro aspecto significativo de su vida”.

Mondragón, mayo 2011
Arizmendiarietaren Lagunak Elkartea
Jose Maria Larramendi,
Presidente

ere burua osoki
emateko erakutsi zuen
ahalmen eredugarria
ezagunagoa izan bedi...

Jose Maria Arizmendiarieta Jainkoaren Zerbitzariaren bizitza emankorra, haren irakaspen pertsonal eta zuzenaren bidez gurekin egoteari utzi zionetik hogeita hamabost urte igarota, ahanzturan murgilduz doa poliki-poliki. 1976an hamarka mila ziren hura ezagutzen eta haren ontasunetik elikatzen ziren pertsonak. Gaur egun, berriz, haren lekukoen kopuruak nabarmen egin du behera eta, ondorioz, gutxiago dira haren fedearen heroikotasun agerikoaren, haren itxaropenaren eta karitatearen errekonozimendua
–Ebanjelioko Jesusenganako maitasunak santutasunerantz zeramana–
eskuratu nahi duten dizipuluak.

Donostiako Elizbarrutiko gotzaina den Don Juan Maria Uriartek eta elizbarruti fasean kausaren postulatzaile izandakoak duela bost urte idatzitako otoitzak laburbildu egiten du, Jainkoari laguntza eskatu ondoren eta lau paragrafotan, Aitari zuzendu beharreko eskaria haren

ue su ejemplo de entrega
llegue a ser más conocido...

La fecunda vida del Siervo de Dios José María Arizmendiarieta va siendo olvidada a medida que van pasando siete lustros que nos dejó de acompañar con su magisterio personal y directo. Si en 1976 eran decenas de miles las personas que le conocían y se nutrían de su bondad, ahora el número de sus testigos ha disminuido considerablemente y, consiguientemente, son menos los discípulos que aspiran a que sea reconocida la manifiesta heroicidad de su fe, su esperanza y su caridad instado hacia la santidad por su amor al Jesús del Evangelio.

La oración que hace cinco años redactaron el Sr. Obispo de la Diócesis de San Sebastián, Dn. Juan María Uriarte y la postuladora de la causa en su fase diocesana, resume, tras la invocación al Señor y en cuatro párrafos, la plegaria que debiera dirigirse al Padre para obtener con devoción creyente todas sus gracias. Y nos impulsa a decir: "... que el ejemplo de entrega de este sacerdote llegue a ser más conocido...".

grazia guztiak debozio sinestunez lortzeko. Eta horrek haxe esatera bultzatuko gaitu: "...apaiz honek bere burua osoki emateko erakutsi zuen ahalmen eredugarria ezagunagoa izan bedi...".

Hortik sortu zen sei hilero Informazio Buletin bat zabaltzeko ideia, non, beste informazio batzuekin batera, Jainkoaren Zerbitzariaren bizitza laburbilduko baitzen 22 mugarriren bidez, beste hainbeste seihilekotan argitaratzeko asmotan.

Gizon hura sakon ezagutu nahi duenak eskuragarri dauzka haren biografia eta haren ikuspegi sozial, filosofiko eta espiritualak deskribatzen duten beste liburu batzuk; obra oso-oso bat, dena batera hartuta, emankorra eta handi askoa. Laburtutako ideia bat eskuratu nahi dutenek, berriz, hemen daukate idazki labur hau, erraz irakurtzekoa, haren bizitza santuaren adierazpen hautatu eta kronologikoa.

José M^a Ormaetxea,

Mondragon Kooperatiba
Esperientziaren Ko-fundatzailea.
2011ko martxoa

De aquí nació la idea de divulgar semestralmente un Boletín Informativo en el que además de otras informaciones, se extracta la vida del Siervo de Dios a través de 22 hitos que se van publicando en otros tantos semestres.

Quien desee conocerle en profundidad tiene a su alcance su biografía y otros libros que describen su visión social, filosófica y espiritual; toda una obra, en conjunto, prolífica y de gran envergadura. Pero quienes deseen acceder a una idea sintetizada en forma de opúsculo, de fácil lectura con la idea, quizá, de dirigir su oración a su figura, ahí tiene esta reveladora expresión selecta y cronológica de su santa vida.

José M^a Ormaetxea,

Co-fundador de la Experiencia
Cooperativa de Mondragón.
Marzo 2011

Iturbe baserria

El caserío Iturbe

Jose Maria Arizmendiarieta Markinako Barinagan jaio zen 1915eko apirilaren 22an. Jose Luis Arizmendiarieta eta Tomasa Madariaga senar-emazteen seme-álabak hauek ziren: Patxi, Maria eta Jesus. Jose Luisek eta Tomasak Iturbe baserria zeukaten; baita soroak eta aintzat hartzeko modukoazienda ere.

Jose Mariak garai hartan euskal landan bizi ohi zen giro sakrifikatu pasatu zuen haurtzaroa, non egunerokolan gogorra urtaroen erritmoak gidatzen baitzuen, nekazaritzako eta abeltzaintzako zereginak antolatuz. Dena zegoen lanaren menpe; dena, jainkozaletasuna izan ezik. Hala, eguneroko bizitzan lanaren gogortasuna eta fede kristaua elkartzen zireneko erritual zorrotz baten barruan zegoen, eta giro hartan hezi zuen Tomasak Jose Maria txikia.

Hala bada, haurrak moral zorrotza jaso zuen amarengandik, non lana eta fedea elkartutako bi balio funtsezko baitziren. Moral hori egunero berritzen zuten afal aurretik arrosarioa esanez; baita Barinagako San Pedro elizako sakramentuetan parte hartuz ere.

Bien bitartean, Jose Mariak elizatearen esparru estua gainditzen zuen errealtate sozialarekiko jakin-min gero eta handiagoa jaso zuen Jose Luis aitarengandik, izan ere,

José María Arizmendiarieta nació en Barinaga, Markina, el 22 de abril de 1915. Era el primogénito del matrimonio formado por José Luis Arizmendiarieta y Tomasa Madariaga, que tuvo, además, otros tres hijos: Patxi, María y Jesús. José Luis y Tomasa poseían un caserío, Iturbe, dotado de tierras de cultivo y una respetable cabaña ganadera.

La infancia de José María transcurrió en el característico ambiente sacrificado del campo vasco de entonces, en el que el exigente trabajo cotidiano quedaba regido por el ritmo de las estaciones que ordenaban las faenas agrícolas y ganaderas. Todo quedaba subordinado al trabajo, todo excepto la piedad religiosa. Así, la vida cotidiana quedaba enmarcada en un riguroso ritual que asociaba la exigencia en el trabajo y la fe cristiana, en el cual Tomasa educó al pequeño José María.

Así, el pequeño tomó de su madre una estricta moral en la que trabajo y fe constituían dos valores asociados y esenciales. Esta moral era renovada diariamente con el rezo del rosario antes de la cena; así como con la participación en los sacramentos en la vecina Iglesia de San Pedro de Barinaga.

Mientras, de su padre José Luis recibió una creciente inquietud por conocer la realidad social que superaba el estrecho marco de la anteiglesia, en donde



1915eko apirilaren 22a. Markinako Barinaga auzoko Iturbe baserrian jaio zen.

22 abril 1915. Nace en el Caserío Iturbe del Barrio de Barinaga en Markina.

gertakari politiko eta kulturek apenas zeukaten eraginik Iturbeko baserri bizimodu lasai eta neketsuan.

Ingurune hartan, Jose Maria txikia bere baitara bildutako nortasun gogoetazalea osatuz joan zen, eta hori irakurtzeko eta marrazteko zeukan zaletasun goiztiarrean islatu zen. Hala, denborarekin apaiz ikasketak egitera lerratu zen, garai hartako euskal nekazari gizartean ohikoa zenez. ●

tenían eco sucesos políticos y culturales que apenas afectaban la tranquila y sacrificada vida campesina de Iturbe.

Ese fue el entorno en que el pequeño José María fue formando una personalidad de inclinación recogida y reflexiva, reflejada en su temprana afición por la lectura y el dibujo, que le iría decantando hacia una futura carrera sacerdotal, como era común en la sociedad campesina vasca de aquel tiempo. ●

Erlijio bokazioa

La vocación religiosa

Familiako semerik zaharrena izaki, Jose Mariak izan behar zuen baserriaren arduradun aita-amak hiltzean. Hala ere, haren izaeraren eta nortasunaren eraginez, baserriko lanetik aldenduaz joan zen haurtzarotik.

Gogoetatsua, abstrakziorako gaitasun handikoa, marrazketan eta eskulanetan trebea, irakurzalea eta jaiotzetiko jakin-min handikoa, Arizmendiarritarren arteko zaharrena aurki nabarmendu zen Barinagako auzo eskolako ikaslerik onenen artean.

Letretan trebea eta jakin-min handikoa izanik, ama Tomasak eta Patrocinio maistrak akuilatu egin zituzten gaitasun horiek. Bizkaiko landa inguruko jendarte biziki jainkozalea izaki, jakin-minez bizi zen mutil haren bide naturala seminarioa zen. Bizitzaren eta gizakiaren misterioez jakiteko grina ezin zitekeen jendarte hartan eta apaizgorako prestatze garai hartan askatu. Mutiko asko beren lagunen artean nabarmendu eta seminarioan sartzen ziren, baina gutxik amaitzen zituzten ikasketak eta ministerioa eskuratu.

Eta hala, 1922. urtean, mutil luzexko, argi, isil, jakingura, intuizio handiko eta langile hark lehen aldiz sorterrria utzi eta Gaztelu-Elexabeitiako seminario txikiko diziplinan sartu zen.

Han, ordura arte bizi izan zeneko

Eomo primogénito de la familia, José María era el destinado a hacerse cargo del caserío cuando sus padres fallecieran. Sin embargo, su temperamento y carácter le fueron distanciando desde la infancia del trabajo del campo.

Pensativo, dotado para el pensamiento abstracto, hábil en el dibujo y los trabajos manuales, interesado por la lectura y con una curiosidad innata, el mayor de los Arizmendiarrieta pronto destacó como uno de los mejores estudiantes de la escuela de barriada instalada en Barinaga.

Su habilidad con las letras y su afán de conocimiento fueron alentados por su querida madre, Tomasa, así como por su maestra, Patrocinio. En una sociedad intensamente piadosa como era la rural vizcaína, el camino natural de un muchacho inquieto y deseoso de aprender era el Seminario. El afán por conocer los misterios de la vida y del ser humano no podía desprenderse en aquella sociedad y aquel tiempo de la preparación para el sacerdocio. Muchos eran los niños que, destacando entre sus compañeros, entraban en los seminarios, y pocos los que terminaban los estudios y alcanzaban el ministerio.

Y así el año 1922, un chicuelo larguirucho, inteligente, silencioso, curioso, intuitivo y trabajador, abandonó por primera vez el terruño materno para



Senideak: eserita aita Jose Luis eta ama Tomasa. Zutik anai-arrebak, ezkerretik eskuinera: Jesus, Maria eta Francisco. Atzean senide nagusia, Don Jose Maria.

La familia: sentados su padre José Luis y su madre Tomasa. De pie sus hermanos, de izquierda a derecha Jesús, María y Francisco. Detrás el hijo mayor, Dn. José María.

baserri girotik urrun, Jose Maria txikiak mundu berri bat deskubritu zuen. Beste asko bezala, beretzako hizkuntza arrotza zen gartzelaniaz adierazmen egokia hartzeko borrokan ibili zen, eta aldi berean, erlijio ikasketetan buru-belarri murgildu zen. Gainera, erlijiozko kezkatik abiatuta, euskal kultura eta gizartea modernizatu nahi zuten mugimendu berriekin zaletzen hasi zen. Eta uda oro, Iturbe maitean pasatzen zituen oporraldiek biziberritu egiten zizkioten, batetik, bere jatorria, eta bestetik, bera hazi zeneko eta fedearen zerumuga ezin besarkatuzkoa deskubritu zueneko baserri lurrarekiko fidelitasuna. ●

integrarse en la disciplina del Seminario Menor de Castillo–Elejabeitia.

Allí, lejos del espacio aldeano en que había vivido hasta entonces, el pequeño José María descubrió un mundo nuevo. Peleó, como tantos otros compañeros, por alcanzar capacidad expresiva en una lengua extraña como era el castellano, a la vez que se volcó en los estudios religiosos y comenzó a simpatizar con los nuevos movimientos que, desde la inquietud religiosa, buscaban una modernización de la cultura y sociedad euskaldun. Y cada verano, las vacaciones en el querido Iturbe le recordaban, además, su origen y fidelidad a la tierra campesina en que había crecido y en la que había descubierto el horizonte inabarcable de la fe. ●

Gasteizko espiritualtasun mugimendua

El movimiento de espiritualidad de Vitoria

Hogeita hamarreko urteen erdialdean, politika eta gizartea tentsioaren eta gatazkaren bidetik zihoazen. Bitartean, Jose Maria, seminarioko elkarbizitzan hain eragin handia zuten tentsio horien lekuko jakingura eta arduratua, apaizgoaren espiritualtasunaren mundua deskubritzen ari zen. Haatik, hura ez zen eskoletan eta ariketa erretorikoetan hartutako espiritualtasun abstraktua, Joaquín Goicoecheandia maisu maitearen zuzendaritza espiritualaren pean bizitako espiritualtasuna baizik.

Irakasle ospetsu haren pedagogia praktikoan oinarrituta, Jose Maria apaizgaia Jainkoaren ezagutza apaletik abiatzen zen mundutik gizarterantz irekitzen hasi zen, gizakien eta horien behar sozial eta pertsonalen aldeko konpromiso materialerako apustua eginez.

Jose Mariak Goicoecheandia, Juan Thalamas edo Roberto Aguirre bezalako irakasleengandik barnerratu zuen Gasteizko Apaiz Mugimenduaren Espiritualtasuna, apaiza Jesukristoren figurarekin identifikatzea sustatzen zuena. Jesukristo bere bizitzaren isla bihurtu zen, bere sakrifizioen gidari eta perfekzio nahiaren helmuga.

Harrezkero, Jose Mariak Goicoecheandiaren arau hau bere egin zuen: “Apaiza izan, apaiza beti eta


La política y sociedad marchaban, mediando los años treinta, por el sendero de la tensión y el conflicto.

Mientras, José María, testigo curioso e inquieto de esas tensiones que tanto afectaban la convivencia en el Seminario, descubría por entonces el mundo de la espiritualidad sacerdotal. Pero no una espiritualidad abstracta, tomada de las clases y los ejercicios retóricos, sino una espiritualidad vivenciada, especialmente, a través de la dirección espiritual de su querido maestro Joaquín Goicoecheandia.

Con la pedagogía práctica de este ilustre profesor, José María comenzó a tantear un mundo que partía de su discreto conocimiento de Dios como futuro sacerdote para abrirse a la sociedad, mediante la apuesta por el compromiso material con los seres humanos y sus necesidades sociales y personales.

La espiritualidad del Movimiento Sacerdotal de Vitoria, que José María tomó de profesores como Goicoecheandia, Juan Thalamas o Roberto Aguirre promovía la identificación del sacerdote con la figura de Jesucristo. Jesucristo se convertía en el espejo de su vida, en guía de sus sacrificios y horizonte de sus aspiraciones de perfección.

José María asumió, desde entonces, la máxima de Goicoecheandia: “Ser sacerdote, siempre y en todo sacerdote”.



1934ko apirilaren 19a: Kutzamendin, beste apaizgai batzuekin.

19 abril de 1934: en Kutzamendi con otros Seminaristas.

guztian". Beti perfekzioa bilatu behar zuen apaizak, eta horrek esan nahi zuen karitatean jardun behar zuela, eskuzabalki eta mugarik gabe. Horregatik, 1936ko martxoaren 10ean, seminarioko hainbat kiderekin batera, apaiz bizitzako erregelamendua kotsakratu zuen, Jainkoaren eta Ama Birjinaren aurrean, Gasteizko Apaiz Mugimenduaren Espiritualtasunean eta sakrifizio eta eskaintza printzipioetan oinarrituta. ●

Un sacerdote que debía buscar siempre la perfección, que residía en el ejercicio generoso y sin límites de la caridad. Fue por ello que, el 10 de marzo de 1936, consagró, junto a varios compañeros de seminario, ante Dios y la Virgen María, un reglamento de vida sacerdotal inspirado en el Movimiento de Espiritualidad Sacerdotal de Vitoria y sus principios de sacrificio y entrega. ●

Apaizgai euskalduna

Un seminarista euskaldun

Gasteizko Seminarioan, Jose Maria, apaiz mugimendu espiritual berri batean gogo biziz sartzearekin batera, hezkuntza sare bikain bati ere lotu zitzaion aldi berean. Gerrara arte, Gasteizko Seminarioa Elizak Espainian zeukan hezkuntza zentrorik onena izan zen, aparteko irakasleak zituenak. Bertan, markinar gaztearen prestakuntza intelektualean funtsezkoak izan ziren bi izen hauek nabarmendu ziren: Jose Migel Barandiaran eta Manuel Lekuona.

Lehenak naturan eta naturaren misterioetan sartzen lagundu zion Jose Mariari, giza espiritualtasuna ulertzeko marko egokia zelakoan. Paleontologo entzutetsuak bere ikasleen artean sustatu zituen txangoek eta azterketa sozial nahiz zientifikoek arrasto ezabaezina utzi zuten apaizgai gaztearen nortasunean. Bien bitartean, Jose Mariak Manuel Lekuona izan zuen gidari euskal kulturaren berpizkundean; izan ere, Lekuona euskal kulturako lider nagusietako bat zen. Jose Maria Kardaberazko kide egin zen. Kardaberaz euskara sustatzeko apaizgaien talde bat zen, Lekuonak sortua. Bertan, Jose Mariak mundu modernora eta, batez ere, federa irekitako euskal nortasunaren behaketan sakondu zuen. Izan ere, Kardaberazek, euskara berpiztu ez ezik, euskara elizaren kausarentzako baliagarriago izatea ere nahi zuen.

En el Seminario de Vitoria José María no sólo se había incorporado con entusiasmo a un nuevo movimiento de espiritualidad sacerdotal, también lo había hecho, al unísono, a un entramado educativo excepcional. El Seminario vitoriano fue, hasta la guerra, el mejor centro educativo de la Iglesia en España, dotado de un extraordinario plantel docente. En él sobresalieron dos nombres esenciales para la formación intelectual del joven marqués: José Miguel de Barandiarán y Manuel de Lekuona.

El primero introdujo a José María en la naturaleza y sus misterios como marco de comprensión de la espiritualidad humana. Las excursiones y análisis sociales y científicos que el insigne paleontólogo promovió en sus estudiantes dejaron una impronta imperecedera en la personalidad del joven seminarista. Mientras, Manuel Lekuona le guió, en paralelo, en el renacimiento de la cultura euskaldun del que era uno de los máximos líderes. Enrolado en Kardaberaz, la agrupación de seminaristas promotores del euskera que Lekuona había fundado, José María profundizó en una contemplación de la identidad vasca abierta al mundo moderno y, sobre todo, a la fe. Y es que Kardaberaz no buscaba sólo un renacer del euskera, sino que éste sirviera mejor a la causa de la Iglesia.



1940: azken urteak apaizgai (25 urte).

Hori dela eta, apaizgai gazteak, Gasteizko espiritualtasun berriaren printzipioak bereganatzen zituen bitartean, euskal hizkuntzaren ezagutzan sakontzen zuen Kardaberazen, sentitzen ari zen espiritualtasun bizi-bizia islatzeko xedez. Horra hor, gerra hasi baino lehentxeago “ohar espiritual” batzuetan idatzi zuena: “Nire kabuz ezin dut ezer egin, maitasun egintzarik txikiena ere egiteko, Jainkoaren grazia behar dut”. ●

1940: Últimos años de Seminarista (25 años).

Por ello el joven seminarista, a la par que adoptaba los principios de la nueva espiritualidad vitoriana, perfeccionaba su conocimiento de la lengua vasca en Kardaberaz, con el fin de reflejar mejor la intensa espiritualidad que iba experimentando. Y es que, como había escrito en unas “anotaciones espirituales” poco antes del inicio de la guerra: “Por mí nada puedo, para hacer el menor acto de amor me hace falta la gracia de Dios”. ●

Bake gizona gerran

Homme de paz en la guerra

Don Alberto Onaindiaren gerrari eta erbestealdiari buruzko memorien izenburuak egoki laburbil dezake Jose Mariaren gorabeheraz beteriko bizitza Gerra Zibilaren garaian. 1936 inguruan, Jose Mariak bazekien Euskadi maitatzen, beste inongo aberririk gorrotatu gabe jakin ere. Maitasun hori Gasteizko Seminarioan egindako lan euskaltzalean gauzatu zen, euskal kulturaren alde. Aurrekari horrekin, eta haurtzarotik jasaten zuen itsutasun partzialak gerrako frontera joatea galarazten zionez, Errepublikaren kontrako altxamendu militarra hasi zenean, apaizgai gazteak *Eguna* egunkarian aurkitu zuen lana. Egunkari hori 1936ko urrian Bilbon eratutako Eusko Jaurlaritzaren bozeramaile euskalduna zen.

Jose Mariaren kazetaritza lana ez zen belizista izan, orduko testuingurua halakoa bazen ere. Harenak, gerra garaian egonda ere, bake argudioak ziren beti, eta baita gerra fratrizida baten erdian euskal herriak jasaten zuen sufrimenduak eragindako lantuzko argudioak ere. Bien bitartean, apaiz bokazioarekiko leialtasunari eutsi zion, eta 1937ko hasieran Eusko Jaurlaritzak Bilbon irekitako seminarioan parte hartu zuen.

Ekimen laburra izan zen oso, euskal autonomia hura bezain. 1937ko ekainean Bilbo erori eta ihes egin

El título de las memorias de guerra y exilio de Don Alberto Onaindía puede resumir, apropiadamente, la agitada vida de José María en el tiempo de la Guerra Civil. A la altura de 1936, el joven seminarista había aprendido a amar a Euskadi sin, por ello, odiar ninguna otra patria. Ese amor había sedimentado en su trabajo *euskaltzale* en el Seminario de Vitoria, en pro de la cultura vasca. Con este precedente, y dado que la ceguera parcial que sufría desde la niñez le inhabilitaba para acudir al frente de guerra una vez iniciado el alzamiento militar contra la República, encontró trabajo en el periódico *Eguna*, portavoz euskaldun del Gobierno Vasco formado en octubre de 1936.

Su trabajo periodístico no fue, pese al contexto en que tuvo lugar, belicista. Sus argumentos eran siempre de paz en un tiempo de guerra, así como de lamento por el sufrimiento del pueblo vasco, inmerso en una guerra fratricida. Mientras, mantendrá su fidelidad a la vocación sacerdotal, participando en el Seminario abierto en Bilbao por el Gobierno Vasco a comienzos de 1937.

Se trató de una iniciativa fugaz, como lo fue la propia autonomía vasca. La caída de Bilbao, en junio de 1937, le llevó a la huida y, finalmente, a la cárcel, víctima de la denuncia de un convecino de Markina. La resolución del Consejo



1937, Gerra Zibila: Larrinagako espetxean preso (Bilbo).

1937 Guerra Civil: preso en la Cárcel de Larrínaga (Bilbao).

ondoren, espetxeratu egin zuten azkenik, Markinako herrikide baten salaketa tarteko. Ondorengo Gerra Kontseiluaren ebazpena, baina, nahikoa onbera izan zen eta horrek aukera eman zion Bergaran prestatutako seminario berrira itzultzeko, non bizitza osorako arrastoa utzi zion funtsezko pertsona aurkitu baitzuen: Don Rufino Aldabalde. ●

de Guerra fue, sin embargo, benévola, lo que le permitiría regresar al nuevo Seminario habilitado en Bergara donde encontraría a una persona providencial en su vida: Don Rufino Aldabalde. ●

Don Rufino

Don Rufino

Jose Maria Bergaran prestatutako seminariora iritsi zenean – Gasteizkoa itxita zegoen gerraren ondorioz– Rufino Aldabalde aurkitu zuen han. Haren irakaspenetan, gazteak abadetza sozialerako behin betiko bidea aurkitu zuen. Eta abadetza hura apaiz ideal zorrotz batean funtsatzen zen. “Bizitzak etengabeko meza bat izan behar du”, azpimarratzen zuen behin eta berriz Aldabaldek, “gugan dagoen guztia Jainkoarena, arimena da, ez gara guretzako apaiz”.

Eta zuzendaritza espiritual haren pean joan zen Jose Maria ikasiz apaiz izateak berarekin zekarren abentura. Abentura haren hasiera eta bukaera lagun hurkoarengan zegoen, ez norberarengan. Eta hurkoari zerbitzatu behar zitzaion Kristoren bizitzaren irudi eta antzera. Hori dela eta, Bergarako seminarioa hasi berritan soldadutza egitera Burgosera joateko agindu ziotenean, diziplina neurri haren bidegabekeria gainditu beharreko beste proba baten gisara hartu zuen apaizteko perfekzio bide zailean.

Euskal apaizgaien komunitate txiki batean bizi zelarik, mobilizatutako gainerako kideekin batera, Aldabalderen funtsezko aholku hau jaso zuen: “Gerrak zure ariman zizelatzen dituen pena, min eta estualdi guztiak ez dira galdutako indarrak izango, zure bizitza emankor bihurtzeko aukera aproposagoak baizik.

Cuando José María llegó al Seminario habilitado en Bergara, cerrado el de Vitoria por causa de la guerra, encontró allí a Rufino Aldabalde. En su magisterio el joven descubrió el camino definitivo hacia el sacerdocio social. Un sacerdocio que se fundaba en un exigente ideal sacerdotal. “La vida debe ser una misa continua”, insistiría Aldabalde, “todo lo que hay en nosotros es de Dios, es de las almas, no somos sacerdotes para nosotros”.

Así fue como José María fue aprendiendo, bajo su dirección espiritual, la aventura que significaba ser sacerdote. Una aventura en la que el principio y el fin estaba en el prójimo, no en uno mismo. Un prójimo al cuál debía servir a imagen y semejanza de la vida de Cristo. Por ello, cuando al poco de comenzar el seminario de Bergara recibió la orden de marchar a Burgos a realizar el servicio militar, la injusticia de esta medida disciplinaria la asumió como nueva prueba que superar en el difícil camino de perfección hacia la ordenación.

En la pequeña comunidad de seminaristas vascos con la que convivió se mantuvo fiel al consejo capital que recibió, junto al resto de compañeros movilizados, de Aldabalde: “todo el capítulo de penas, dolores y privaciones que la guerra habrá esculpido en tu alma no serán fuerzas perdidas, sino ocasiones más propicias



1941eko apirilaren 21a: Arrasaten, Santa Barbarako muinoan haizeak botatako zedroaren ondoan. Bi hilabete ziren bere parrokiara iritsi zela (26 urte).

21 Abril de 1941: Junto al cedro derrumbado por el viento en el cerro de Santa Bárbara, en Mondragón. Hacía 2 meses que había llegado a su Parroquia (26 años).

Funtsezkoena helburua ez galtzea da: apaiz santu izan nahi dut”. Jose Maria gogo beroz atxiki zitzaion ideal horri, eta hala, Burgosko negu gorriaren erdian, honakoa aitortu zion bere gidari espiritual maiteari: “Badaukat arrazoirik Jainkoari eta Ama Birjina Txit Santuari eskerrak emateko (...) [zeren eta], apaizgai gisa dagozkidan jaierazko betebeharrei erregulartasunez eta normaltasunez erantzuteaz gainera, lasaitasun osoz ikasten jardun baitezaket (...). Udaberria hemen pasatzera etsi nuen eta horixe da Amabirjinari eskaini diodan aurretiazko lorea (...). Eskerrak eman behar dizkiot Jainkoari gure bokazioak egiten digun onura handiagatik”. ●

para fecundizar tu vida. Lo esencial es que no pierdas de vista el fin: quiero ser sacerdote santo”. José María se aplicó con entusiasmo a este ideal y así pudo confesar a su querido director espiritual, en mitad del frío invierno burgalés: “Tengo motivos para estar agradecido a Dios y a la Virgen Santísima (...) [pues] puedo, además de atender con absoluta regularidad y normalidad a todas mis obligaciones piadosas de seminarista, estudiar con todo sosiego (...). Ya me resigné a pasar la primavera aquí y esa fue la flor anticipada que le he ofrecido a la Virgen (...). Tengo que dar gracias a Dios por el beneficio tan grande de nuestra vocación”. ●

Apaiz ministerioa

El ministerio sacerdotal

Eerra amaitu zenean, Jose Maria Gasteizko seminariora itzuli zen. Burgosko kide guztiak ez ziren harekin batera bueltatu. Gerrako bizipenen eta seminariotik hartutako distantziaren eraginez, gelditu ziren askoren bokazioa hoztu egin zen eta zalantza gehien zituztenek azkenean abandonatu egin zuten Aldabaldek, 1939ko irailean apaizgaiei zuzendutako jardun espiritual gogoangarrien ondoren, planteatzen zuen bokazio zorrotza.

Gutxi izan ziren, bada, jardun horien ondoren aurrera egin eta apaiz ministerioa eskuratzeko asmo sendoa berretsi zutenak. Haietako bat Jose Maria izan zen, zeinak, bere gelako bakardadean, bere bokazioaren misterioaz galdetu zion behin eta berriro bere buruari, misterio hori babes espiritual gisa besarkatuz: “A ze misio handia eta ederra apaiz katolikoarena: gizateriaren beste erredentore bat izatea! (...) Apaizaren zoriona inoren malkoak xukatzean datza. (...) Berak nahi duen lekura eraman nazan utziko diot Kristori (...). Ez dit axola izango inguruan ditudanek nitaz zer esango duten; soilik nigan dagoen Kristok zer esango duen axola izango dit”. Asmo sendo horrek bultzatuta, Aldalderen prestakuntza espiritual eta sozialeko jardueretan gogo biziz murgildu zen, izan ere, Aldabaldek elkartu egiten zituen halako jardueretan

Al finalizar la guerra, José María retornó al Seminario de Vitoria. No todos sus compañeros de Burgos regresaron con él. Las vivencias de la guerra y la distancia del Seminario enfrió la vocación de muchos y de los que quedaron, los más dubitativos terminaron por abandonar la exigente vocación que Aldabalde les planteaba tras los memorables ejercicios espirituales para seminaristas que éste dirigió en septiembre de 1939.

Fueron, pues, sólo unos pocos los que siguieron adelante tras estos ejercicios, reafirmandose en la determinación de acceder al ministerio sacerdotal. Uno de ellos fue José María quien, en la soledad de su celda, se interrogó intensamente por el misterio de su vocación, abrazándolo como refugio espiritual: “¿Qué misión más grande y hermosa la del sacerdote católico ser otro redentor de la humanidad! (...) La felicidad del sacerdote [consiste] en enjugar las lágrimas ajenas. (...) Dejaré que Cristo me arrastre donde quiera Él (...). No me importará el qué dirán los que me rodean, tan sólo el qué dirá Cristo en mí”. Movido por esa determinación, se entregó con entusiasmo a las actividades de formación espiritual y social de Aldabalde, en las que éste agrupaba a todos aquellos a los que iba seleccionando por sus especiales dotes para el ministerio sacerdotal.



1941eko irailaren 10a: Don Jose Maria makinaz idazten, etxeko galerian.

10 Setiembre de 1941: Dn. José María escribiendo a máquina en la galería de su casa.

apaiz ministeriorako dohain bereziengatik hautatuak zituen apaizgaiak.

Aldabaldek fede sendoa transmititu zion Jose Mariari apaiz ministerioaren ahalmen eraldatzaileaz. Ekintza eta otoitza haren abadetza idealaren erreferente biak ziren; horien oinarrian, barne espiritualitate zorrotza eta ebanjeliozko pobretasunaren ideala muturrera eramaten zuen austeritate pertsonala zeuden. Horiexek ziren Barinagako seme gaztearen erreferenteak 1940ko udaberrian, bere erretiro espiritual bateko bakardadean, hauxe adierazi zuenean: “Orain arte neure burua Jainkoari emanda bizi izan naiz, baina erresalbuekin. Gaurtik aurrera osoki Kristorengan, eta soil–soilik Kristorengan, izan nahi dut”. Apaiz ordenatzea besterik ez zen geratzen. Abenduaren 21ean olio sakratua jaso zuen eta 1941eko urtarrilaren 1ean lehen meza esan zuen, ikaragarri maite zuen Barinagako San Pedro parrokian. ●

Aldabalde le transmitió una férrea fe en la capacidad transformadora del ministerio sacerdotal. Acción y oración eran los dos referentes de su ideal de sacerdocio, que descansaba en una exigente espiritualidad interior y una austeridad personal que llevaba al límite el ideal de pobreza evangélica. Tales fueron los referentes que el joven hijo de Barinaga adoptó cuando, en la primavera de 1940, proclamó, en la soledad de uno de sus retiros espirituales: “Hasta el presente me he entregado a Dios, pero con reservas. Desde hoy quiero ser del todo en Cristo y nada más que de Cristo”. Ya sólo quedaba ordenarse. El 21 de diciembre recibía los óleos sagrados y el 1 de enero de 1941 oficiaba su primera misa, en su queridísima parroquia de San Pedro de Barinaga. ●

Arrasate: ebanjelizaziorako lurra

Mondragón: tierra de evangelización

1 941ean, Jose Maria Arrasateko San Joan Bataiatzailearen parrokiara bidali zuten apaiz lagunkide gisa. Garai hartan, Arrasateko herri industrial bitan zatituta zegoen gerrak eragindako traumaren ondorioz. Borrokak bereizi egin zituen herritarrak, eta gainera, herritarrok Europak bizi zuen mundu gerra berriaren laztasuna jasaten ari ziren. Izan ere, urte haietan gosea, pobrezia eta era guztietako gabeziak zeuden.

Iritsi eta segituan, Jose Maria gazteak herriko gazteengan jarri zuen arreta, haien artean lan mundua espiritualizatzeko liderrak aurkitzeko helburuz. Hala, gogo biziz ekin zion predikatzeari, bai apaiz lagunkide zeneko elizan bai Ekintza Katolikoaren Zentroan, non arrasatear gazteak prestatzen baitzituen. Ere mu horietan isuri zuen maitasuna “batez ere eukaristian sortzen zen, zeina bere apaizgoaren erdigunea baitzen”, Antonio Oyarzabalek gogoratzen duenez. Zorrotz zaintzen zituen sakramentu horren xehetasun guztiak, apaizte bezperan Jainkoari oparitan eskainitakoaren eguneroko berrespina baitzen: “Hemendik aurrera Kristorengan izan nahi dut osoki, soilik Kristorena”.

Sermoietan adierazten zuen erreberentziazko solemnitateak egunero ematen zuen eukaristian izaten zuen goren puntua, eta eliztar txundituta geratzen ziren: “Ematen zuen Bedeinkapenaren

En 1941, José María fue enviado como nuevo coadjutor de la parroquia de San Juan Bautista de Mondragón, villa industrial partida en dos por la traumática experiencia de la guerra. La contienda había separado a sus vecinos que sufrían, además, los rigores de la nueva guerra mundial que vivía Europa, que convertían aquellos años en un tiempo de hambre, pobreza y todo tipo de privaciones.

Rápidamente el joven prestó atención a los jóvenes de la villa, con el fin de encontrar entre ellos aliados con los que liderar una nueva espiritualización del mundo del trabajo. Comenzó, así, una predicación muy intensa, tanto en la iglesia de la que era coadjutor como en el Centro de Acción Católica en el que formaba a los jóvenes mondragoneses. El amor que vertió en estos ámbitos se fundaba, como recordaría Antonio Oyarzabal, “principalmente en la eucaristía, [que] era el centro de su vida sacerdotal”. Cuidaba con rigor todos los detalles de ese sacramento, que constituía su sanción diaria de la ofrenda que había hecho a Dios en la víspera de su ordenación: “desde hoy quiero ser en todo en Cristo y nada más que de Cristo”.

La solemnidad reverencial que trasladaba a sus sermones y que culminaba en la eucaristía que oficiaba diariamente sorprendía a los feligreses: “El sentido



1942ko abuztuaren 9a: Jose Luis Iñarra jauna, parrokoa, eta Jose Maria jauna (biak Arrasateko parrokian kokatu eta 17 hilabetera).

9 Agosto de 1942: Dn. José Luis Iñarra, Párroco, y Dn. José María (17 meses después de haberse instalado ambos en la Parroquia de Mondragón).

esanahi misteriotsuak beste plano batera transzendiarazten zuen”, gogoratzen du herritar batek. Solemnitate horrek bere apaizgotik irradiatzen zen fedeari hotsandiko edukia ematea ahalbidetzen zion. Inoiz ez zuen beste sakramentu baten praktika ahazten, hartarako dohain handirik eduki ez eta nekezagoa gertatzen zitzaion arren eguneroko sermoian edo Ekintza Katolikoan praktikatu behar zuena: oratoria. Oratoria praktikatzea Jainkoaren aurreko eguneroko umiliaziotzat hartzen zuen, eta bertan garbitzen zuen apaiz perfektzioaren bidean gerta zitekeen edozein goranahi pertsonal. ●

misterioso de la Consagración parecía que le hacía trascender a otro plano”, recordaría uno de ellos. Esa solemnidad le permitía infundir un contenido solemne a la fe que irradiaba de su quehacer sacerdotal. No olvidaba la práctica de otro sacramento que le era mucho más penoso, por carecer de grandes dotes para él, que practicaba en el sermón diario o en la Acción Católica: la oratoria. Su práctica la asumía como una humillación cotidiana ante Dios en la que expiaba cualquier ambición personal que pudiera abrigar en su exigente camino de perfección sacerdotal. ●

Hezkuntza

La educación

Jose Mariak Arrasateko jendartea birkristautzearen idealean jarri zituen bere indar guztiak, eta horrek, Arrasate herri industrial izaki, lan munduan erabaki sendoz jardutea eskatzen zuen. Horretarako, gainera, gazteen konfiantza bereganatu behar zuen. “Gure herriko gazte masa mobilizatzea”: horixe zen, haren hitzetan, egiten zuen eguneroko lana Ekintza Katolikoaren Zentroan.


Oraindik ere gelditzen da lan horren arrastorik soziologiaren proposamen berrien irakurketa nekaezinaren ondorioz egin zituen fitxetan, betiere langileen munduan espiritualtasun berri baten bila: “Aizu, gaztea, (...) zuk zeuk zer daukazu, eta zer daukazu emateko? Zure poztasuna, zure baikortasuna, zure alaitasuna; horiek guztiak ulermen, maitasun, tratu ezti, eskuzabaltasun eta laguntzeko prestasun bihurtuta... eman liteke ezer hoberik?! Gaztea, eskain egiezu zeure burua zure lagunei laguntzarik ez dutenean, eta irakatsi egiezu zure noblezia eta zintzotasuna baliatuz. Eman zakizkio Kristori eta isla ezazu Kristo zugan ontasuna eginez”.

Jose Mariaren hitzaldietako baten zati horiek haren gazte pedagogia laburbiltzen dute: gazte langileek norberaren salbazorako eta klasearen salbazorako giltza zeukaten. Baina adorea eta erabakitasuna ez ziren nahikoa.

José María dedicó todas sus fuerzas al ideal de recristianización de la sociedad mondragonesa, lo que en una villa industrial como aquella pasaba por una acción decidida en el mundo del trabajo. Y para ello era necesario ganarse a los jóvenes. “Movilizar la masa juvenil de nuestro pueblo”, tal era, en sus palabras, la labor que ejercía, de forma cotidiana, en el Centro de Acción Católica.

De esa labor quedan ecos en las fichas que elaboró con tal fin, resultado de su insaciable lectura de nuevas propuestas de la sociología cristiana que le sirvieran en su búsqueda de una nueva espiritualidad del mundo obrero: “Tú, joven, (...) ¿qué tienes y qué debes dar? ¡Qué mejor para dar que tu alegría, ese tu optimismo, esa tu jovialidad, traducidos y expresados en la comprensión, en el amor, en el trato delicado, en generosidad, en servicialidad!. [Joven] date a tus amigos alcanzándoles cuando estén desatendidos, instruyéndoles, secundándoles con tu nobleza y sinceridad. Date a Cristo reflejando[lo] en tu persona y haciendo el bien”.

Estos extractos de una de sus charlas resumen su pedagogía juvenil: los jóvenes obreros tenían la llave de su salvación individual y de la de su clase. Pero su arrojo y decisión no bastaba. Debían contar con una orientación espiritual, la suya, y con una institución que fuera el



1943: Eskola Profesionaleko lehenengo ikasturtea, Teknologiako eskolan, "Fundizioko kubilotea".

1943: el primer curso de la Escuela Profesional en clase de Tecnología "El cubilote de fundición".

Orientazio espiritualak izan behar zuten, berea, eta baita iraultza espiritual horren motorra izango zen erakunde bat ere. Erakunde horrek hezkuntzan funtsaturik egon behar zuen ezinbestez zeren, haren hitzetan, "gizakia jaiotzetik bainoago egiten da hezkuntzatik". Hala, hezkuntzak gizakia egiten bazuen, kristaua ere egin behar zuen. Filosofia horrekin sortu zuen Arrasateko Eskola Profesionala, haren ebanjelizazio idealaren motorra. ●

motor de esa revolución espiritual. Esta institución sólo podía descansar en la educación porque, en sus palabras, "el hombre no nace tanto cuanto se hace por la educación". Así, si la educación hacía al hombre también debía hacer al cristiano. Tal fue la filosofía con la que fundó la Escuela Profesional de Mondragón, el motor de su ideal evangelizador. ●

Gazte langileak

Los jóvenes obreros

Extremismo ideologikoz beteriko berrogeiko hamarkada hartan, non gerra zibilak eragindako zauriak artean orbaindu gabe baitzirauten, bai San Joan Bataiatzailearen elizan bai Ekintza Katolikoaren zentroan, Jose Mariak denon arteko batasunaren eta elkartasunaren bidez eraikitako berdintasunezko eta bidezko gizarte baten utopia predikatzen zuen: “Gizakiak kreazioaren errege gisa gauzatzen du bere burua, haren eraikuntzak haren barruan iraunkor denaren mende jartzen dituen heinean. Nork bere burua gauzatzea da lagun hurkoengana jotzea eta haien babesa izatea”, predikatzen zuen.

Eta gazte langileak izango ziren iraultza sozialerako proiektu hura bultzatuko zuten liderrak. Zeren eta langile eta gazte izan aurretik kristauk baitziren. Honako hau esaten zuen: “Enplegatu, langile, zernahi izan aurretik, bataiatu egin zintuzten, eta bataioaren bidez sartu zinen kristau gorputzean; nolatan utz liteke alde batera ikusezina baina benetakoa den beste organismo horren martxaz –hots, kristau elkartearen martxaz– pentsatzea eta haren berri izatea? Gainerako kideez interesa agertu eta beharra dutenean haiek laguntzera joan behar duzu derrigorrez”.

Eta hala, gazte zirkulu txikietan gazte langileen elite bat osatuz joan zen. Gazte haiek eredu eta bultzagile izango ziren,

En estos años cuarenta de extremismos ideológicos, en los que las heridas de la guerra civil seguían sin cicatrizar, en la Iglesia de San Juan Bautista y el centro de Acción Católica, José María predicaba la utopía de una sociedad igualitaria y justa, construida mediante la unión y la solidaridad entre todos: “el hombre se realiza como rey de la creación en la medida que supedita sus propias construcciones a lo que hay en él mismo de perenne. Realizarse significa acudir y apoyarse en sus semejantes”, predicaba.

Y los jóvenes obreros eran los llamados a liderar ese proyecto de revolución social. Porque antes que obreros, y antes que jóvenes, eran cristianos. Así se lo decía: “antes que empleado, antes que obrero, antes que todo, eres bautizado, por el bautismo te incorporaste al cuerpo cristiano, ¿cómo concibes las cosas que te excusas de pensar, de informarte de la marcha de ese otro organismo invisible pero real que constituye nuestra comunidad cristiana? Estás obligado a interesarte por los demás miembros, a socorrerlos en sus necesidades”.

Y así, en los pequeños círculos juveniles fue formando a una elite de jóvenes obreros, aquellos que deberían dar el ejemplo máximo que alentara a los demás a seguirles; aquellos que deberían contar con la mejor preparación posible,



1941: langile gazteekin.

1941: Con los jóvenes trabajadores.

gainerakoek ere jarrai ziezaieten. Gazteok ahalik eta prestakuntzarik onena izan behar zuten, nahiz eta jatorri xumekoak izan eta imajinatu ere ez egin prestakuntza hori inoiz eskuratu ahal izango zutenik. Horretan tematu zen Jose Maria, eta horregatik, gazte haietako gutxi batzuk, gidariak proposatzen zien egitekoarekin ilusioz beterik, goi ikasketak egin zituzten Zaragozan, Arizmendiarrietaren gestioak egiteko trebetasunari eta gogatzeko dohain mugagabeei esker. ●

pese a que su origen humilde les hiciera inimaginable que tal formación pudiera serles accesible. Tal fue el empeño de José María, y por eso unos pocos de ellos, los más ilusionados en la empresa que su mentor les proponía, lograron alcanzar, de su mano, estudios superiores en Zaragoza, gracias a su habilidad en la gestión y a sus dotes de persuasión ilimitadas. ●

Den-denean apaiz

En toda sacerdote

Berrogeiko hamarkada aurrera zihoan eta Jose Maria atsedenik gabeko zeregin publiko batean murgilduta bizi zen. Izan ere, haxe zen berea egina zuen apaiz ideala: apaiz higatuarena, Kristoren ebanjelio idealari osoki emana eta “jana” bizi denarena. Jose Mariak mundu soziala lehenetsi zuen ebanjelizaziorako espazio gisa, eta atsedenik gabe jarduten zuen horretan.

Hala ere, apaiz lagunkide gazteak bazekien ezin zuela sakrifikatu, helburu soziala eskuratzeko, bere dinamismo ekintzailea elikatzen zuen iturria, hau da, bere espiritualtasuna. Apaiz ministerioa zorrotz bizi zuen eta horretan zetzan haren lidergo ekintzailea. Harridura eta askotariko konplizitateak sortzen zituen bai gazte langileen artean, bai eskualdeko enpresaburu eta aski dirudunen klasekoen artean, bai edozein ideologiatako arrasatearren artean, eta hori gertatzen zen Jose Mariaren jarduera nekaezinaren aurretik bazegoelako mundu guztia liluratzen zuen sakontasun espiritual bat.

Otoitzak eta Eukaristiak gidatzen zuten haren bizitza; horiek markatzen zuten Arizmendiarietaren egutegia eta sekula ere ez ziren haren zeregin publikoaren mende egon, nahiz eta zeregin publikoak gero eta denbora luzeagoa eskatu, eta Madrilera bidaia gehiago egin behar, eta probintzia guztiko eta probintziatik

La década de los cuarenta iba pasando y José María vivía sumido en una labor pública que no conocía descanso. Tal era el ideal sacerdotal que había hecho suyo: el del sacerdote consumido, “comido” por la entrega al ideal evangélico de Cristo. Y él había elegido como espacio preferencial de evangelización el mundo social, y a ello se dedicaba, sin descanso.

Sin embargo, el joven coadjutor sabía que no podía sacrificar en aras de su objetivo social la fuente que alimentaba su dinamismo emprendedor: su espiritualidad. En su exigente vivencia del ministerio sacerdotal residía su liderazgo emprendedor. Si sorprendía y generaba las complicidades más diversas, entre jóvenes obreros, entre la clase acomodada y empresarial de la comarca, entre el vecindario mondragonés cualquiera que fuera su ideología, era porque por delante de su actividad incansable se encontraba una profundidad espiritual que cautivaba a todos por igual.

Oración y Eucaristía regían su vida, marcaban su calendario vital y nunca se veían subordinadas a su labor pública, por mucho que ésta le requiera cada vez de mayor tiempo, de más viajes a Madrid, de más charlas o conferencias en centros de Acción Católica de toda la provincia y más allá. Como le había insistido su



Ezeren gainetik, apaiza:
Aste Santuko prozesioa.

Sobre todo Sacerdote: Procesi3n
de Semana Santa.

haragoko Ekintza Katolikoaren zentroetan hitzaldi gehiago eman behar. Jose Mariaren gidariak azpimarratu zuen legez: “Beti eta den–denean apaiz”. Bizitza osoa, barnekoa nahiz kanpokoak, publikoa zein pribatua, soziala eta espiritualak; horiek guztiek haren apaizgoaren adierazpide izan behar zuten. Eta halaxe utzi zuen idatzita, behin eta berriz, erretiro espiritualetan idatzi ohi zituen gogoeten artean: “Bizitza honetan, zure misioa bestea zoriontsu egitea da, eta beharrezkoa izanez gero, zure odolaren kontu, Kristok gurekin egin zuen legez; beti gainerakoak zoriontsu egin behar dituzu zure borondatearen kontu, hau da, norberaren sakrifizioaren bidez besteak gogobetez”. ●

mentor: “siempre y en todo sacerdote”. Toda la vida, interna y externa, p3blica y privada, social y espiritual, deb3a ser expresi3n de su sacerdocio. Y as3 lo dejaba por escrito, una y otra vez, en las reflexiones que escrib3a en sus retiros espirituales: “Tu misi3n en la vida es hacer felices a los dem3s, si es preciso a costa de tu sangre como Cristo nos hizo a todos; [debes hacer] felices a los dem3s a costa de tu voluntad siempre, o sea, satisfaci3ndo[los] con sacrificio propio”. ●

Komunitatearen aldeko sakrifizioa

El sacrificio por la comunidad

Behin, egun gutxi batzuen epean Gasteizko Espiritualtasun Mugimenduaren aldizkarirako kolaborazio bat eskatu zion lagun bati erantzunez, hauxe adierazi zion Jose Mariak: “Larunbatean jaso nuen zure gutuna, aitorlekuan zarratu nintzen orduan hain juxtu. A ze baikor agertzen zaren hor tartean igandea duzula dakizunean, non behin baino gehiagotan ilunsentian otoitz egin behar izaten dudana, nahiz eta goizean goiz jaiki!”. Kristau elkarteari, Elizari, etengabeko zerbitzua emanaz bizi izan zen Jose Maria eta, batzuetan, muturreko ordutegiak bilatu behar izaten zituen elizkizunak gidatzeko eta aitortza entzuteko.

Berrogeita hamarreko urteetan, haren bizitza lan nekaezina zen: lana Ekintza Katolikoaren zentroan, San Joan Bataiatzailearen parrokan, Eskola Profesionalean. Lana, lana eta lana: Zaldispeko Eskola Profesional berria eraikitzeko, tuberkulosiaren kontrako anbulatorioa sortzeko, Gurea pilotalekuzinea irekitzeko eta, azkenik, arrasatear komunitatearen mesedetan sortzen ari zen gizarte ekintzako obra handia gestionatzeaz arduratu ziren Liga Profesionalak eratzeke.

Bera zen eredu gisa jartzen zen lehena, eta hala, gazteei eta eliztarrei eskatzeko zilegitasuna zuela sentitzen zuen: “Ez dago inor guk kristauok bezainbesteko eskubidez eta zuzentasunez hitz egin

Eontestando a un amigo que le apremiaba a enviarle en pocos días una colaboración para la revista del Movimiento de Espiritualidad de Vitoria, José María le comentaba: “Recibí tu carta el sábado, a la hora que me encerraba en el confesionario. ¡Qué optimista eres cuando sabes que media un domingo, en el que más de una vez suelo tener que rezar a pesar de mucho madrugar casi a la luz del crepúsculo vespertino!”. Su vida era un continuo servicio a la comunidad cristiana, a la Iglesia, en el que las horas se le pasaban sin darse cuenta y, en ocasiones, debía buscar horarios extremos para oficiar y confesar.

Su vida, a la altura de los años cincuenta, era un trabajo incansable: trabajo en el centro de Acción Católica, en la parroquia de San Juan Bautista, en la Escuela Profesional. Trabajo, trabajo y más trabajo, con el fin de levantar la nueva Escuela Profesional de Zaldispe, el dispensario antituberculoso, el Cine-Frontón Gurea y, finalmente, las Ligas Profesionales que se encargarían de gestionar la vasta obra de acción social que iba creando en beneficio de la comunidad mondragonesa.

Él era el primero que daba ejemplo y, así, se sentía legitimado a reclamarlo a jóvenes y feligreses: “Nadie puede hablar con tanto derecho y con tanta propiedad sobre la dignidad del trabajo como



Kirolari gazteekin.

Con los jóvenes deportistas.

dezakeenik lanaren duintasunaz”, adierazi ohi zuen. Kristok lana birgaitu egin zuen “bere ereduarekin eta bere dotrinarekin: pobre jaio zen, lan eginez bizi izan zen, eta lana kontsakratu eta sakrifikatu zuen”. Haren ereduari jarraituz, mugarik gabeko lanari bere burua ematen lehenengoa izan behar zuen apaizak.

Pasio handiz egiten zuen zeregin neurrigabea zen. 1952ko irailean, Loiolan egiten ari zen gogo jardun batzuetan, honakoa idatzi zuen: “Nire bizi egoera ehun aldiz aukeratu behar izango banu, apaizgoa besarkatuko nuke beti (...). Arimen berrerospenak apostoluaren sakrifizioa eta otoitza eskatzen eta ekartzen du. (...) Kristori begiratzen badiot eta Harengatik lan egiten badut, haren zoriaz kontentatu behar dut”. ●

nosotros los cristianos”, proclamaba. Cristo había rehabilitado el trabajo “con su ejemplo y con su doctrina: nació pobre, vivió trabajando, consagró y sacrificó el trabajo”. Siguiendo su ejemplo, el sacerdote debía ser el primero en entregarse a un trabajo sin límite

Era una tarea inmensa que celebraba con pasión. En septiembre de 1952, en unos ejercicios espirituales en Loiola, escribía: “cien veces que tuviera que volver a escoger mi estado de vida abrazaría el sacerdocio (...). La redención de las almas exige y supone sacrificio y oración del apóstol. (...) Si miro a Cristo y trabajo por Él, he de contentarme con su suerte”. ●

Gizarte apostolutza

El apostolado social

Bai Eskola Profesionalera bai Ekintza Katolikoaren Zentrora biltzen zituen gazteek, bada, Jose Mariak sortu nahi zuen kristau enpresa berriak beharko zituen koadro teknikoak osatuko zituzten. Izan ere, berrogeita hamarreko lehen urteetan, enpresa hori enpresa kapitalistaren erreforma moraletik (eta egiturazkotik) sor zitekeela uste zuen, lankidetzaren, batasunaren eta berdintasunaren idealean oinarrituz.

Eskolan egunero ematen zuen hitzaldian “ozenki pentsatzeko” aukera izaten zuen, eta halaxe definitzen zuen bere didaktika. Hitzaldiaren bidez bere dizipuluak zirikatu eta erakarri nahi izaten zituen, enpresaren erreforma horretan apostolu izatera animatu, betiere justizia sozialean eta hezkuntza, prestakuntza eta lan onurei zegokien aukera berdintasunean oinarrituta. Hala, maiz jotzen zuen gogoeta intelektual oparo batetik ateratako aipamen labor eta adierazkorretara, izan ere, prestakuntza horren erakusgarri da bere liburutegi pertsonal aparta eta bere irakurketa eta hausnarketan ohar zehatzak gordetzen zituen fitxategia.

Jose Mariaren kezka intelektualak dena hartzen du: tokiko pentsalari sozial handiak, esaterako, Gregorio R. de Yurre; laborismo berriaren liderrak, hala nola Attlee edo Beveridge; Herrera Oria, Enrique y Tarancon, García de

Los jóvenes que convocaba tanto en la Escuela Profesional como en el Centro de Acción Católica iban a formar los cuadros técnicos que precisaría la nueva empresa cristiana que anhelaba fundar. Una empresa que, en los primeros años cincuenta, aún confiaba que podía nacer de una reforma moral (y estructural) de la empresa capitalista, basada en el ideal de cooperación, unión e igualdad.

Su charla diaria en la Escuela era el lugar preferente en donde “pensaba en voz alta”, como le gustaba calificar su didáctica. Con ella buscaba provocar a sus discípulos, seducirles y animarles a ser apóstoles de esa reforma de la empresa, basada en la justicia social y la igualdad en oportunidades de educación, formación y beneficio del trabajo. Así, recurría con facilidad a citas cortas y expresivas que tomaba de una vasta reflexión intelectual, que queda reflejada en su selecta biblioteca personal, y de los ficheros en los que guardaba anotaciones precisas de sus lecturas y reflexiones.

Su inquietud intelectual lo abarcaba todo: los grandes pensadores sociales locales, como Gregorio R. de Yurre, los líderes del nuevo laborismo, como Attlee o Beveridge, los “obispos rojos” como Herrera Oria, Enrique y Tarancon o García de Castro y, muy en especial, filósofos



1946ko ekainaren 25a: Landan, Araban, Juventud Deportiva de Mondragon-en Ligako finala ospatzen. Harekin batera Jose Luis Iñarra, parrokoa, eta Jose Ubago, Juventud Deportiva-ko lehendakaria.

25 Junio de 1946: en Landa, Alava, celebrando la final de la Liga de Juventud Deportiva de Mondragón. Con él Dn. José Luis Iñarra, Párroco, y José Ubago, Presidente de Juventud Deportiva.

Castro eta halako “gotzain gorriak” eta, berezi-bereziki, Maritain, Mounier eta antzeko kristau filosofoak, zeinak gizakia, pertsona, haren pentsaera sozialaren zentroan jartzen lagundu baitzioten. Autore horien bidez, hezkuntzan, lanean eta gizakiaren duintasunean oinarritutako humanismo integrala aldarrikatzen ikasi zuen. Izan ere, bere dizipuluei esaten zenez, “gizakiak urdaila eta behar material batzuk ez ezik bere duintasunaren gero eta kontzientzia zehatzagoa ere badauka”. Lantegiak –baieztatu ohi zuen– “familia ordeztzen du gizarte sarearen nukleo gisa”; hori dela eta, kristau enpresa berriaren idealaren arabera, bata eraldatuz mesede egiten zaio besteari, Elizaren misio ebanjelikoaren arrakastari lagunduz. ●

cristianos como Maritain o Mounier, que le ayudaron a convertir al hombre, a la persona, en el centro de su pensamiento social. Aprendió con ellos a reivindicar un humanismo integral que descansara, como reivindicaba Mounier, en la educación, el trabajo y la dignidad del hombre. Y es que, como comentaba a sus discípulos, “el hombre no sólo tiene un estómago y unas necesidades materiales, sino también una conciencia cada vez más definida de su dignidad”. La fábrica, afirmaba, “suplanta a la familia como núcleo del entramado social” y, por ello, su ideal de nueva empresa cristiana, al transformar una, beneficiaría a la otra, contribuyendo al éxito de la misión evangélica de la Iglesia. ●

Elizbarrutiko apaiza

Un sacerdote diocesano

Berrogeita hamarreko hamarkadaren erdialdeko argazkietan, Jose Maria oso-oso nagusi agertzen da, zahartuta kasik, nahiz eta berrogei urte baino ez izan. Haren fisikoan nabari da bokazioaren eta bere burua osoki ematearen ondoriozko arrastoa. Apaiztu zenean prestatutako boto pertsonalean bereganatutako uste sendo berberei eutsi zien. Hain zuzen ere, Jose Mariaren pentsalari gogokoenetakoa zen Jacques Leclercqk honelaxe laburbildu zituen usteok: “Apaiza fededunentzako da, dagoeneko ez da bere buruarena, ez du beretzako ezer, osoki da besteentzako. Apaiz idealak, berez, ez du ez ordutegirik ez eragozpenetatik babesteko etxerik. Beretzako orduak, bada, besteek beharrik ez duten orduak baino ez dira”.

Eta Jose Mariak, aipatutako gogoeta horiek osatzeko, apaiz ministerioaren kontenplazio zorrotz eta santutzaile horrekiko batasun sakona islatzen zuten gogoeta propioak egiten zituen: “Kristau apaizgoa Jainkoak ezarritako bidea da, bide horren bitartez gizateriari Haren graziak eta bedeinkapenak eman ahal izateko”. Azken batean, ohar espiritual batean jaso zuenari jarraiki, apaiz bokazioa “prestasun espiritualean” zetzan.

1952ko gogo jardun batzuetan, hauxe idatzi zuen: “Nire bizi egoera ehun aldiz aukeratu behar izango banu,

Mediados los años cincuenta, José María aparece en las fotos extraordinariamente maduro, casi avejentado, cuando apenas ha alcanzado los cuarenta años. En su físico se aprecia el rastro de su vocación y de la entrega total que le suscita. Mantiene las mismas convicciones que hizo suyas en el voto personal que preparó en su ordenación. Las mismas que Jacques Leclercq, uno de sus pensadores predilectos, había resumido así: “el sacerdote es para los fieles, ya no se pertenece, no tiene nada para sí, todo es para los demás. El sacerdote ideal no tiene, pues, horario, ni casa donde pueda encontrarse al abrigo de los importunos. Las horas de que dispone para sí son tan sólo aquellas de las que los demás no tienen necesidad.”

Y José María correspondía a estas reflexiones con otras propias que reflejaban su honda comunión con esa contemplación exigente y santificadora del ministerio sacerdotal: “el sacerdocio cristiano es el conducto establecido e impuesto por Dios para que a través suyo se puedan conceder sus gracias y sus bendiciones a la humanidad”. En definitiva, como recogía en una de sus notas espirituales, la vocación sacerdotal consistía en una “disposición espiritual”.

En unos ejercicios espirituales fechados en 1952, escribió: “cien veces que tuviera



1950 inguruan: gotzaina Arrasaten bisitan (Herriko Plaza), parrokiako apaizekin eta Arrasateko zenbait apaizgairen segizioarekin.

Hacia 1950: visita del Sr. Obispo a Mondragón (Herriko Plaza) con Sacerdotes de la Parroquia y un cortejo de seminaristas de Mondragón

apaizgoa besarkatuko nuke beti”, “arimen berrerospenak apostoluaren sakrifizioa eta otoitza eskatzen eta ekartzen du”. Handik urtebetera bere uste sendo eta ezin erosizkoa berretsi zuen: “Apaizon izateko arrazoi bakarra beti dena eman digunari zerbitzu ematea da, erresalburik gabe”. Hona hemen kaiera espiritualean idatzitako beste gogoeta bat: “Apaizgoa onartuta, gauza batzuei betiko egin diet uko: hobeto esanda, neure buruari erabateko ukoa egiteko konpromisoa hartu dut. Beti naiz apaiz”. ●

que volver a escoger mi estado de vida abrazaría el sacerdocio”, “la redención de las almas exige y supone sacrificio y oración del apóstol”. Un año después reafirmó su convicción insobornable: “no tenemos [los sacerdotes] otra razón de ser que servir a quien nos ha dado todo y siempre, sin reservas”. En otra reflexión, volcada en su cuadernillo espiritual, escribiría: “Al aceptar el sacerdocio he tenido que renunciar para siempre a algunas cosas: mejor dicho me he comprometido a renunciarle del todo a mí mismo. Soy sacerdote siempre”. ●

Kristau enpresa

La empresa cristiana

Tokiko enpresa tradizionalak beren antolamenduan eta botere banaketan erreformak egiteko mesfidati agertzen zirela-eta, Arrasateko apaiz lagunkideak predikatzen zuen lan komunitarioaren ideala itxaropen handiz ikusten zuten langileek –Jose Mariaren babesarekin– justizia sozialaren eta berdintasunaren printzipio ebanjelikoak lan mundura eramatea erabaki zuten. Ehunetik gora langilek egin zuten bat ideiarekin eta haren dizipulurik maiteenak martxan jarri zuten ideia. Ekimenaren azpitik, gainetik, alde guztietatik, hauxe zen denek nahi zutena: lana kristau ebanjelizazioarako bide bihurtzea.

Jose Mariak enpresa abentura berriaren gertaera guztietan parte hartu zuen, baina beti inbertsonalizatuta, ikusezin. Garai hartako gutun batean jakinarazi zuen enpresa berria, Ulgor izenekoa, “oso kristau onak eta, esango nuke, benetako apostoluak diren gazte batzuek osatutako taldearen” ekimena izan zela. Baina ez ziren ausaz bildutako apostoluak izan; ez, haien gizatasuna, dohain naturalak eta ezagutzak Jose Mariak hezi, elikatu eta orientatu zituen. Halaxe lortu zuen, bada, Pio XI.ak *Quadragesimo Anno* entziklika ospetsuan egindako eta Aldabalde gidariak behin eta berriz aldarrikatutako agindua, hots: langile apostoluen elite bat sortzea.

Eta hori guztia xede batekin, hau da,

Los obreros más esperanzados con el ideal de trabajo comunitario que predicaba el coadjutor de Mondragón decidieron, con su respaldo, crear una empresa capaz de trasladar los principios evangélicos de justicia social e igualdad al mundo del trabajo, dadas las reticencias de las empresas locales tradicionales a reformar su organización y reparto de poderes. Más de cien trabajadores se unieron a la idea, que fue puesta en marcha por sus discípulos más queridos. Por debajo de la iniciativa, por encima de ella, por todos lados, un ánimo común: convertir el trabajo en cauce de evangelización cristiana.

Él participó en todos los episodios de la nueva aventura empresarial, pero siempre impersonalizado, invisible. Subrayó por entonces, en carta en la que daba noticia de la iniciativa, cómo la nueva empresa, de nombre Ulgor, había sido una iniciativa de “un grupo de jóvenes que son muy buenos cristianos, y hasta le diré que verdaderos apóstoles”. Pero no eran apóstoles al azar, su valía humana, sus dotes naturales, sus conocimientos habían sido educados, alimentados y orientados por él. Así había logrado culminar el mandato que Pío XI había hecho en su famosa encíclica *Quadragesimo Anno* y que había reclamado, insistentemente, su mentor Aldabalde:



1956: Eroskiren aitzindaria izan zen San Jose Kontsumo Kooperatiba inauguratu zen.

1956: se inaugura la Cooperativa de Consumo San José, precursora de Eroski.

eredu sozietario kooperatiboa gidatu zuena, eta 1955 eta 1959 bitartean Mondragon esperientziaren sortzetiko tetralogia piztuko zuena (Eskola Profesionala, Ulgor, San Jose Kooperatiba, Caja Laboral – Euskadiko Kutxa): lan mundua ebanjelizatzea. Izan ere, “langileen munduak ez du Elizaren dotrina sozialean sinetsiko gizarte ekintzen errealitatean mamiturik ikusten ez badu”. ●

crear una elite de apóstoles obreros.

Y todo ello con un fin, el mismo que orientaría el abrazo del modelo societario cooperativo que alumbraría, entre 1955 y 1959, la tetralogía fundacional de la experiencia de Mondragón (Escuela Profesional, Ulgor, Cooperativa San José, Caja Laboral): evangelizar el mundo del trabajo. Y es que “el mundo obrero no creará en la doctrina social de la Iglesia si no la ve encarnada en la realidad de las obras sociales”. ●

Lankidetza

La cooperación del trabajo

Jose Mariak sortutako kristau enpresak ez ziren ezerezetik jaio. Enpresok hamabost urtetik gorako tartean eraikiz joan zen gizarte, laguntza, industria eta osasun ekintza oparo, askotariko eta eraginkorrean gauzatutako lanaren eta autogestioaren didaktikatik sortu ziren. Hala ere, intuiziozko kooperatibismo horrek kodifikazio bat behar zuen. Eta kodifikazio hori Jose Mariak, bere dizipuluen laguntzaz, Ulgor Tailerretarako idatzitako estatutuen eskutik etorri zen eta estatutuok arrasatear kooperatibismoaren benetako katixima bihurtu ziren.

Agiri horietan eta beste batzuetan ageri zen lankidetzaren idealak honako xede hau zeukan: gizarte industrial batean, non gizatasuna arlo ekonomikoan txertatuta baitzegoen, kristautasuna ernaraztea. Estatutu horietan, lana gizakiarentzako bide askatzaile gisa agertzen zen; autogestioa, berriz, estrategia ebanjeliko gisa, eta langilearen printzipio gidari gisa, azkenik, aurrezpena, exijentzia eta austeritatea: “Formula kooperatiboak eskatzen du giza jardunak goi mailako giza balio batzuk partekatu eta inplikatzeara; beraz, lana, kapitala eta enpresa antolamendua ez dira berez helburuak, giza interesen alde hobeto egiteko bitartekoak baizik”. Hala, “lankidetza hauxe da: guztien ongiak hala eskatzen duen heinean, norberaren

Las empresas cristianas fundadas por José María no nacieron de la nada, sino de una didáctica del trabajo y la autogestión materializada en la rica, diversa y efectiva obra social, asistencial, industrial y sanitaria que había ido levantando durante más de quince años. Sin embargo, ese cooperativismo intuitivo precisaba de una codificación. Y ésta llegó de la mano de los estatutos que José María, con la colaboración de sus discípulos, redactó para Talleres Ulgor, auténtico catecismo del cooperativismo mondragonés.

El ideal de cooperación formulado en éstos y otros documentos tenía como fin el hacer brotar el cristianismo en una sociedad industrial en la que lo humano había quedado injertado en lo económico. En estos estatutos, el trabajo aparecía como cauce liberador del hombre, la autogestión como estrategia evangélica, y el ahorro, la exigencia y la austeridad personal como principios rectores del obrero: “la fórmula cooperativa requiere que la actividad humana comparta e implique unos valores humanos superiores, por lo que el trabajo, el capital, la organización [empresarial] no son fines en sí, sino medios para servir mejor a los altos intereses humanos”. Así, “la cooperación es unión de personas que han sabido aceptar las limitaciones de la propia voluntad en



1966ko irailaren 13a: Hezkuntza eta Zientzia ministroak "Fagor" hozkailu fabrika bisitatu zuen.

13 setiembre de 1966: el Ministro de Educación y Ciencia visita la planta de Frigoríficos "Fagor".

borondatearen mugak onartzen jakin duten pertsonen arteko batasuna".

Lana, honenbestez, egunerokoan Jainkoa goresteko modu bihurtzen zen: "Gizakia Jainkoarekin eta bere antzekoekin lankidetzan jarduteko etorri da mundura". Ez alperrik, tonu zirikatzailez esan zuenez, "lehenengo kooperatibista, hain zuzen, Adán izan zen. Eta lankidetzat sistema proposatu ziona Jainkoa bera izan zen (...). Jainkoak gizakia sortu eta paradisuaren erdian jarri zuen 'lan egin zezan' (...) une horretatik aurrera gizakiak lan egin du eta lankidetzan dihardu kreazioaren obran". ●

la medida que requiera el bien común".

El trabajo era, así, convertido en una forma de ensalzar a Dios en el día a día: "el hombre ha venido al mundo para cooperar con Dios y con sus semejantes". No en vano, como diría con tono provocador, "el primer cooperativista fue precisamente Adán. Y quien le propuso un sistema de cooperación fue nada menos que Dios (...) Dios creó al hombre y le puso en medio del paraíso 'para que trabajara' (...) desde este momento el hombre trabaja y con el trabajo coopera en la obra de la creación". ●

Apaizgoa santutasunerako bide gisa

El sacerdocio como vehículo de santidad

Jose Mariak, berak hainbeste miresten zuen Joan XXIII. aren gaineko panegiriko eder batean, hauxe idatzi zuen hirurogeiko hamarkadan ondo sartuta: “Gizarte berri bat, ordena berri bat eraikitzeko ahaleginean dihardugu, gizakiari, Kreazioak hala nahita, dagokion lekua aitortuko diona (...). Fededun bakoitzak berrerokide izan behar du, hau da, kristauak, bere buruaz baino lagun hurkoaz, justizia goseak eta egarriak bizi behar du, Kristoren malkoekin eta gurutzearekin”.

Eta berak, zeukan espiritualtasun zorrotzak animatuta, ideal berrerokide horren eredu izatea zegokiola sentitzen zuen. Eredu izate horrek bere gizarte ekintza osoa piztu zuen, eta horren gailurra honako hau izan zen: enpresa pertsonalista eta parte hartzaile berria, non Ulgor eta Caja Laboral liderrak baitziren. *Sacerdotii Nostri Primordia* entziklikan, Joan XXIII.ak azpimarratu zuen apaizaren lehenengo betebeharra hauxe zela: “Norberaren santutasunera iristea, eredu izanez, hitzen bidez eta zientziaren bidez fededunen gidari izateko”.

Eta Arrasateko apaiz lagunkidea arau horren dizipulu leiala izan zen, izan ere, apaiztu zeneko garaitik izan zuen gidari arau hori. Aipatutako Aita Santua hil egin zela—eta, Jose Mariak hauxe utzi zuen idatzirik: “Jainkoak santu nahi gaitu,

En un bello panegírico de su admirado Juan XXIII, José María escribiría, entrada ya la década de los sesenta: “tratamos de ser constructores de una nueva sociedad, de un nuevo orden, que reconozca al hombre el verdadero puesto que le corresponde por designio en la Creación (...). Cada creyente ha de ser corredentor, es decir, el cristiano, comenzando por interesarse más por el prójimo que por sí mismo, ha de vivir con el hambre y la sed de justicia, con las lágrimas y cruz de Cristo”.

Y él, animado por la exigente espiritualidad que profesaba, se sentía llamado a dar siempre ejemplo en ese ideal corredentor. Ese ejemplo había alumbrado su vasta obra social, cuya culminación era la nueva empresa personalista y participativa liderada por Ulgor y Caja Laboral. En la encíclica *Sacerdotii Nostri Primordia*, Juan XXIII había insistido en que el primer deber del sacerdote era “alcanzar la propia santificación” para que “con el ejemplo, con la palabra y con la ciencia sea guía de los fieles”.

Y el coadjutor de Mondragón fue fiel discípulo de dicha máxima, la misma que le había guiado desde el tiempo de su ordenación. En su obituario de este Papa, escribiría: “Dios nos quiere santos, que estemos camino de la santidad”. Y ese camino era muy exigente y cada



1955eko ekainaren 22a: Ekonomia Sozialari buruzko ikastaroak, Madrilén.

22 Junio de 1955: Cursos sobre Economía Social en Madrid.

santutasunaren bidean nahi gaitu”. Bide horrek, baina, asko eskatzen zuen, gero eta ahalegin handiagoa eskatzen zuen. Gero eta gutun gehiago idazten zuen, gero eta hitzaldi gehiago ematen, gero eta kooperatiba gehiago sustatzen, gero eta bisitaldi gehiago egiten ministerioetara. Eta hala ere, inoiz ez zion meza esateari utzi, ez aitortzeari, ez sakramentuak emateari ez eta, batez ere, eukaristia egiteari utzi, beti lehenengo egunean bezain kartsu.

Izan ere, Jacques Leclercq arauari jarraitzen zion: “Apaiza bere buruaz arduratuta badago, ez da gai izango ardura horren neurria Kristori emateko, gizakientzat Kristo izateko, bizitzako arazo eta eskakizunen aurrean Kristoren jarrera ekartzeko”. Hirurogeiko urteetan, lana nabarmen handitu zitzaion Jose Mariari, eta aldi berean, gero eta ahulago sentitzen eta aje fisiko gehiago izaten hasi zen. Baina horrek ez zion galarazten berak gehien maitatu zuen Aita Santuak adierazitako arauari leial izatea, hots: beti “bere bildotsengatik sakrifikatzeko prest dagoen artzain ona izatea”. ●

vez reclamaba más esfuerzo. Cada vez eran más las cartas que escribía, las charlas que impartía, las cooperativas que promovía, las visitas que hacía a los ministerios. Y, pese a todo, jamás dejaba de oficiar misa, de confesar, de administrar los sacramentos y, sobre todo, de celebrar la eucaristía, siempre con la misma pasión que el primer día.

Así era como seguía la máxima de Jacques Leclercq: “si el sacerdote está preocupado de sí mismo, en esta medida exactamente será incapaz de dar a Cristo, de ser el Cristo para los hombres, de traducir la actitud de Cristo frente a los problemas y a las exigencias de la vida”. José María vive, en los años sesenta, un incremento considerable de su trabajo, mientras comienza a sentirse cada vez más débil, con más achaques físicos. Pero ello no le impedía ser fiel a la máxima que había proclamado su pontífice más querido: ser siempre “el buen pastor que se sacrifica por sus ovejas”. ●

Impertsonalizazioa

La impersonalización

Arrasateko mugimendu kooperatibo oparoaren liderra ile urdindun apaiz bat zen, gehien maite zuten dizipuluek –esperientzia kooperatibo distiratsu horretako enpresa nagusiak gidatzen dituzten horiek– oparitutako motordun bizikleta apal baten gainean bere sotana paseatzera ateratzen zuena. Baina, oroz gain, gizon zorrotza izaten jarraitzen zuen eta argi uzten zuen arrasatear enpresaren idealaren funtsa erantzukizun indibiduala zela: “Enpresa kooperatiboan inor ez da soberan egon behar, baina horrexegatik hain juxtu, batek berari dagokiona egiteari uzten dionean, haren lekuan jartzeko ez da inor egongo”. Zeren eta “ezin baita ulertu Jainkoarenganako fede sendo eta koherente bat gizakiarengan, gizakiaren ahalbideetan eta bertute potentzialean federik izan barik”.

Lagun hurkoa beti zuen erreferente, eta betiere arretarik eta are gutxiago beretzako gorazarrerik eskatu barik, azkenen artean azkena jarrita. Hara zer aitortu zuen, zorion adierazpen bati erantzunez: “Zorionekoenen artean nagoela esan dezaket bakarrik, leku askotan topatzen baititut ni baino gehiago eta hobeak direnak, berezitasun honekin: berez beste batzuen gaitasunari eta ekintzari dagokiena niri egozten zaidala.

Seminarioko garaian, hauxe utzi zuen idatzita bere idazki espiritualetan:

El líder del vasto movimiento cooperativo mondragonés es un sacerdote canoso, que pasea su recosida sotana sobre una modesta bicicleta a motor que le han obsequiado sus discípulos más queridos, los mismos que dirigen las principales empresas de esa flamante experiencia cooperativa. Pero, sobre todo, es un hombre exigente, que deja claro que la responsabilidad individual es el fundamento del ideal empresarial mondragonés: “Una empresa cooperativa debe ser tal que nadie sobre, pero por eso mismo no hay otro que le esté reemplazando a uno cuando deja de hacer lo que le corresponde”. Porque “no se concibe una fe sólida y coherente en Dios sin fe en el hombre, en sus posibilidades, en su potencial virtud”.

El prójimo siempre como referente, y siempre sin reclamar atención y menos homenaje a su persona, colocándose el último de los últimos. Contestando a una felicitación que le habían hecho confesaría: “no puedo menos que hacer constar que soy de los más afortunados que en todas partes encuentro muchos que son más que yo y mejores que yo con la particularidad de que se me impute lo que realmente corresponde a la capacidad y acción de otros”.

En sus escritos espirituales, en tiempos del Seminario, había escrito: “He nacido para algo más que para vivir



1970eko irailaren 9a: Garagartzako lantegia inauguratu zen. Industriako ministro Jose Maria Lopez de Letonarekin eta Laneko ministro Licinio de la Fuenterekin.

9 setiembre de 1970: se inaugura la planta de Garagarza. Acompañan los Ministros de Industria, José María López de Letona y de Trabajo, Licinio de la Fuente.

“Niretzako bizitzeko baino, zerbait gehiagorako jaio naiz, ez dut azken gizakia dena baino gehiago izan nahi”. Eta hogeita hamar urte geroago ere, printzipio horri leial jarraitzen zuen, alde guztietan nabarmendu gabe egon nahian, eta hori honelaxe adierazi zuen bere barne-barneko idazkietan: “Bizitza malgu eta erraza abandonatzearen sakrifizioa, bakardadearen eta obedientziaren bizitza”. Zeren eta “umila izatea ez baita ergel eta itsu bizitzea. Jainkoak era orotariko dohainez bete zaitu, hala dohain naturalez nola naturaz gaindikoez. Grazia biziera horretan mantentzea, duda-mударik eta zalantzarik gabe, Jainkoak zuri dizun maitasun bereziaren seinalerik ageriko eta ukigarriena da”. ●

para mí mismo, no quiero ser más que lo que es el último hombre”. Y así seguía, treinta años después, fiel a ese principio, buscando pasar desapercibido en todo, en lo que denominó, en sus escritos íntimos, “el sacrificio del abandono de la vida muelle y fácil, de la soledad y la obediencia”. Porque “ser humilde no es vivir a tontas y a ciegas. Tú has sido colmado por Dios con toda clase de dones, tanto naturales como sobrenaturales. El que te mantengas en ese estado de gracia, sin vacilación y sin titubeos, es la señal más evidente y palpable del amor especial que Dios te tiene”. ●

Bere burua muturreraino ematea

La entrega hasta el extremo

Jose Maria gauza guztietan eta beti zen eredugarri. Bidaiaitu egiten zuen, idatzi, hitzaldiak eman, lagundu. Eta hori guztia parrokiako betebeharrak inoiz ahaztu barik, elizkizunetarako ordurik desatseginenak aukeratuz eta ministerioaren sakramentu eta betebeharrak guztiei leial eutsiz. Kritikei bezainbat egiten zien ezikusi laudorioei, gobernadore zibilekin borrokan ibiltzen zen eta beti bere dizipuluen eskaerei erantzuteko prest egoten zen, haiekin eztabaidan jarduteko eta aholku emateko prest, bere ongizate pertsonala, atsedena, babesteko eta elikatzeko premiarik oinarritzkoenak sakrifikatuz, medikuen aholkuak aintzat hartu ez eta gorputza makalduz zihoakion bitartean.

Jose Mariak bere sakrifizio idealaren gaineko pasarte ederrak utzi zituen gogoeta fitxetan jasota: “Kapitala falta da, Jainkoari eskaini behar dioguna ez eskaintzeagatik izango da: lana, sufrimendua... Kristau eta martiri sinonimoak dira. Gaur egun, martiri bokazioa duena baino ezin izan daiteke kristau. Eta eliza martirien odolaren gainean gailentzen da beti. Martiriak izango gara gure bizitza, zatiz zati, atalez atal, tantaz tanta, ordu bakoitzean, egun bakoitzean, egiaren beraren lekuko gisa eskaintzen dugun aldiro. Martiritza hori, nekeza bezain loriatsua da”.

En todo y siempre José María daba ejemplo. Viajaba, escribía, conferenciaba, acompañaba. Y todo sin olvidar nunca sus deberes parroquiales, eligiendo las horas menos atractivas para officiar y siendo fiel a todos los sacramentos y obligaciones del ministerio. Ignoraba los halagos tanto como las críticas, peleaba con los gobernadores civiles y estaba siempre dispuesto a atender las demandas de sus discípulos, a debatir con ellos y aconsejarles, sacrificando su bienestar personal, su descanso, sus necesidades más elementales de abrigo y alimentación, mientras su cuerpo se debilitaba y él hacía caso omiso a los consejos médicos.

En sus fichas de reflexión, dejaría plasmadas bellas estampas de su ideal de sacrificio: “falta capital [será] no ofrecer a Dios lo que tenemos obligación de ofrecer: el trabajo, el sufrimiento... Cristiano es sinónimo de mártir. Cristiano, hoy, no puede ser más que aquél que tiene vocación de mártir. Y la Iglesia triunfa siempre sobre la sangre de los mártires. Seremos mártires cuando nuestra vida, pedazo a pedazo, parte por parte, gota a gota, en cada hora, en cada día, la ofrezcamos siempre en testimonio de la misma verdad. Este martirio, por lo mismo que es más costoso, es también más glorioso”.

Mediada la década de los sesenta, el coadjutor adivina que ese nivel de



1973ko maiatz: Peruko Gobernuaren ordezkari bat Eskola Politeknikoan bisitan.

Mayo de 1973: visita de una comisión del Gobierno Peruano a Eskola Politeknikoa.

Hirurogeiko hamarkada erdialdean, apaiz lagunkidea ohartu zen bere burua emateko maila horrek gorputz fisikoaren muga zuela. 1967an Madrilen alditxartu egin zen eta horrek bere bihotz gaixoaren egitatea agerrarazi zion. Egin zioten ebakuntza fruituak ematen hasi zenean eta indarberritzen ari zela ikusi zuenean, Jose Mariaren bizinahiak, besteengatik eta besteentzako bizinahiak, gainerakoa egin zuen. Lehen erorialdi hura estropezu txikitat hartu zuen, berriz ere bere bihotz zaurituaren eta gorputz makalaren gurutzea zamatu eta aurrera egin zuen, “beti aurrera”, horixe baitzen Jose Mariaren bizi eta ministerio proiektuaren funtsezko ezaugarria. ●

entrega tiene el límite del cuerpo físico. Un desfallecimiento en Madrid, en 1967, le presentó la realidad de su corazón enfermo. Cuando la operación a que se sometió dio sus frutos y contempló cómo iba recobrando el vigor, su anhelo de vivir, de vivir por los demás y para los demás, hizo el resto. Tomó esa primera caída como un pequeño traspies, cargó de nuevo con la cruz de su herido corazón, de su endeble cuerpo, y siguió adelante, “siempre adelante”, divisa esencial de su proyecto de vida y ministerio. ●

Gaixotasuna

La enfermedad

Hirurogeiko azken urteetan eta hirurogeita hamarreko hasierakoetan, krisi erlijioso eta sekularizazioa abiada bizian hedatu ziren Euskal Herrian, eta urte haietan, Jose Maria bere gainbehera fisiko mantso baina nabarmenarekin bizitzen ikasten ari zen. Eta ikasketa hori, apaiztu zen garaitik leialki jarraitu zuen printzipiotik abiatzen zen. Horren lekuko, haren idazki espiritual askotan jasotakoa: “Gure betebeharra eta bokazioa betetzeko sufrimendua eta mina jasan behar dugunean, sufrimendu, min eta ahalegin horiek oso eramangarriak izaten dira, jainkozko graziaren laguntzak dena egiten baitu jasangarri”. Den–dena; baita berak maite zituenak galtzea ere, 1970ean gertatu zen bezala, urte hartan bere dizipulu begikoenetako bat galdu baitzuen. Edo 1971n, haren ama maitea hil zenean; eta aipatzekoa da hura bizirik zela Jose Mariak hilero egiten ziola bisitaldia familiaren baserrian. Fisikoki gainbehera zetorren eta, paradoxa badirudi ere, haren enpresa esperientzia izugarri goraka zetorren: Eskola Profesionala Eskola Politekniko bihurtu zen eta kooperatibak etengabe handitzen ari ziren, Eroski eta antzeko erreferente berriekin. Bizitzak, bere paradoxan, gizon baten gainbehera fisikoa erakusten zuen eta, aldi berean, baita gizon horren ametsaren hedapen materiala ere, horrenbeste maite zuen Euskal Herrian lau

Los años finales de los sesenta y los que inician los setenta, años de crisis religiosa y secularización acelerada en el País Vasco, son años en los que José María aprendía a convivir con su lento pero perceptible declinar físico. Y dicho aprendizaje partía del principio al que había sido fiel desde el tiempo de su ordenación. Así lo atestiguó en muchos de sus escritos espirituales: “Cuando el sufrimiento y el dolor son requeridos en el cumplimiento de nuestra obligación y de nuestra vocación, son sufrimiento, dolor y esfuerzo muy llevaderos, porque el concurso de la gracia divina todo lo suaviza, todo lo hace soportable”. Todo, incluso la pérdida de aquellos a quienes más amaba, como ocurrió en 1970, cuando falleció uno de sus discípulos predilectos; o en 1971, cuando desapareció su querida *ama*, a la que no había dejado de visitar cada mes en el caserío familiar.

Su declinar personal tenía como paradoja el ascenso espectacular de su experiencia empresarial, con la Escuela Profesional convertida en Politécnica y las cooperativas en perpetuo crecimiento, con nuevos referentes como Eroski. La vida, en su paradoja, mostraba la decadencia física de un hombre a la par que la expansión material de su sueño, difundida a los cuatro vientos de su amada Euskal Herria.

En 1974, este sacerdote diocesano,



1973ko irailaren 5a: Gernikan, hainbat lagunekin (seguruenik apaizak).

5 setiembre de 1973: en Gernika con amigos suyos (probablemente sacerdotes).

haizeetara zabaldua. 1974an, elizbarrutiko apaiz honek, ikaragarritzko enpresa gune bat sortu ondoren, beste bihotzeko ebakuntza bat gainditu behar izan zuen eta konplikazioak aurrekoan baino handiagoak izan ziren. Lehenengo aldia zen heriotza zeruertzean agertzen zitzaiona. Baina hala eta guztiz ere, bularra irekita eduki arren eta ezin sendatuzko lesio batekin bizitzera kondenaturik zegoela jakin arren, haren adorea ez zen batere txikitu. Eta gizon fededun batengan erroturik dauden uste sendoei jarraitu besterik ez zuen egiten. Hain zuzen ere, uste sendo horiek idatzarazi zioten, aspaldi, kristau fedearen kemen indargarriari buruzko gogoeta hau: “Pertsona bat, inoiz erortzen bada, berriz jaikiko da. Inoiz jaisten bada, erorialdiak erasanda, ukazioz, berriz igoko da. Eta are gehiago, erorialdiaz poztu egingo da”. ●

fundador de un impresionante emporio empresarial, hubo de pasar por una nueva operación cardíaca que le generó mayores complicaciones que la anterior. La muerte se le apareció por primera vez como horizonte. Pero aún así, pese a quedar con el pecho abierto y saberse condenado a convivir con una lesión incurable, su tesón no disminuyó un ápice. Y es que sólo hacía honor a sus convicciones más arraigadas de hombre de fe. Aquellas que le habían hecho escribir, hacía ya mucho tiempo, esta bella reflexión acerca del vigor fortalecedor de la fe cristiana: “la persona si es que alguna vez cae, volverá a levantarse. Si es que alguna vez descende, con la impresión de la caída, de rechazo, volverá a subir. Y hasta de la misma caída se alegrará”. ●

Sufrimendua eta mina

El sufrimiento y el dolor

Arrasatear etika kooperatiboaren giltzarria asegabetasuna da, eta hori hala da zeren asegabetasuna baita perfektiorako bidea. Oso bide malkartsua, ibilian dena uztera behartzen zuena, besteen eredu izateko, Kristok lehen kristauekin egin zuen bezala. Jose Mariak betidanik aldarrikatu zuen hobera egiteko eta justizia sozialaren eta denon onuraren bilaketaren bitartez gizakien arteko adiskidantza bide nekaezinean erronka berriak bilatzeko espiritu hori. Behin eta berriz idatzia eta adierazia zuen hori, pentsakizunak eta ideiak haren entzule leialek erraz bereganatzen zituzten esakune asmotsuak sortu arte laburbilduz: “Beti dago beste pauso bat egiteko”, esaten zuen; “Aurrera egiten ez duena, bizitzak eramaten du aurrean”, gaxtigatzen zuen; “Barkatzeko zailena, hobera egiteko espiriturik ez izatea da”, baieztatzen zuen. Kristaua ezin eutsizko bultzada batek bultzatuta jarduten zuen eta: Jainkoaren aginduak bultzatuta. Eta Jainkoak eskatzen zuen ez gotortzeko, erne egoteko, harengana jotzeko, baita bidea bera sufrimendu iturri zenean ere. 1973 eta 1976 bitartean, Jose Maria ohartu zen gaixotasuna azpiak jaten ari zitzaiola bere bizitzari, eta gainera, beste bidaide bat batu zitzaiola: mina. Min fisikoa, operazio ondoko konplikazio baten ondoriozko mina, bularrean zauri ireki bat utzi zion

La insatisfacción es la clave de la ética cooperativa mondragonesa y lo es porque es camino de la perfección. Un camino muy exigente, que en su recorrido obligaba a abandonarlo todo, dando ejemplo a los demás, como Cristo lo dio a los primeros cristianos. José María siempre había reivindicado ese espíritu de superación y búsqueda de nuevos retos en el infatigable camino de la reconciliación entre los hombres mediante la justicia social y la búsqueda del bien común.

Así lo había escrito y proclamado, una y otra vez, sintetizando sus pensamientos y su ideario hasta generar hábiles sentencias que eran fácilmente asimiladas por su fiel auditorio: “Siempre hay un paso más que dar”, decía; “a quien no progresa, la vida le arrolla”, advertía; “lo que más difícilmente puede disculpársenos es la ausencia de un espíritu de superación”, sentenciaba. Porque el cristiano actuaba movido por un impulso irrefrenable: el mandato de Dios.

Y Dios pedía no caer en la consolación, permanecer alerta, caminar hacia él, incluso cuando el propio camino fuera fuente de sufrimiento. Entre 1973 y 1976 José María comenzó a ver cómo la enfermedad minaba su vida y cómo a ella se unía un nuevo compañero de viaje: el dolor. Dolor físico, dolor producto de una complicación postoperatoria, de una cirugía



1976ko urria: etxean, dagoeneko makalduta, hil baino hilabete bat lehenago.

Octubre de 1976: en su domicilio, ya postrado, a un mes de fallecer.

gaizki orbaindutako kirurgia bati lotua. Garbitu beharreko zauri bat zen, min sorra eragiten ziona, Jose Mariaren gizatasunak bere egiten zuena, isilean. Bizi izan zituen pasioko hiru urteek aukera eman zioten askatze pertsonaleko prozesua osatzeko. Gorputzaren eta emozioen nahikarien eta plazeren ukazioarekin batera, sufrimendua Jainkoari eskaini beharreko opari goren gisa onartu zuen, izan ere, idatzirik utzi zuen legez, “gure bokazioak ezartzen digun jarreran, badakigu gure sakrifizioa eta gure sufrimendua konpentsatu egiten direla bai hemen behean bai beste bizitzan”. Mina, beraz, Jainkoaren maitasunean konfiantza izateko beste froga bat zen. ●

mal cicatrizada que le dejó una herida abierta en el pecho. Una herida que debía limpiarse, provocándole un dolor sordo, que asumía con el silencio en el que había sumido su condición humana. Los tres años de pasión que vivió le permitieron completar su proceso de desprendimiento personal. A la negación de las apetencias y placeres corpóreos y emocionales unió la aceptación del sufrimiento como máximo presente que ofrecer a Dios porque, como había dejado escrito, “en la postura que nos impone nuestra vocación, sabemos que nuestro sacrificio y nuestro sufrimiento son compensados, aquí abajo y en la otra vida”. El dolor era una prueba más de confianza en el amor de Dios. ●

Beti aurrera

Siempre adelante

3 7 urterekin egindako gogo jardun batzuetan, Jose Mariak hauxe idatzi zuen beretzat: “Heriotza (...) kristau usteei jarraituz bizi nahi denean eta norbera bere buruarentzat benetakoa izaki (...), ikuspegi naturaletik, amaiera den aldetik, ez da gauzarik astunena eta tristeena. Eta kristau nahiz apaiz ikuspegitik askapena da. Konfiantza izan behar dut Jainkoa bihotz onekoa izan eta nitaz errukituko dela; are gehiago apaiz eta apostolu izaten ahalegintzen banaiz”.

1976ko udazkenean, Jose Mariaren ahulezia muturrera iristen ari zelarik, hark izandako bizimodua epitafio gisako bat izan zen, fedean eta bere bizitzaren zentzu sakonean zeukan uste sendoari lotutako merezitako epitafioa. “Jakinean zegoen esku bete isuritako bizitza bazihoakiola, baina haren bertutezko ezaugarri funtsezkoak ez ziren inoiz ere aldatu. Besteak animatzen jarraitu zuen, bisitan zetozkionen bizitzak eztitzen, sufri ez zezaten”, ekarri zuen gogora gorputzaren eta aldartearen gainbehera garai hartan lagun egin zion dizipulurik maiteenetako batek.

Azaroan ospitaleratu egin zuten, non-eta Jose Mariak berak bultzatutako erietxean. Ohean zetzala, heriotza hurbil, azken idazki hau egin ahal izan zuen: “Eskua eskuari emanda, gogoa gogoari emanda, indarberriturik, lanean baturik, lanaren bitartez, gure lur txiki honetan

En unos ejercicios espirituales celebrados a la edad de 37 años, José María había escrito para sí: “La muerte (...) cuando se quiere vivir con arreglo a unas convicciones cristianas y siendo uno auténtico a sí mismo (...) no es desde el punto de vista natural, como término, lo más pesado y triste. Y desde el punto de vista cristiano y sacerdotal es una liberación. Debo confiar que Dios tenga bondad y misericordia conmigo y más si me esfuerzo en ser sacerdote y apóstol”.

En el otoño de 1976, cuando su debilidad se fue haciendo extrema, la vida que llevó fue digno epitafio de esta convicción profunda en la fe y el sentido de su vida. “Sabía que la vida se esfumaba, que la había derramado a manos llenas, pero sus rasgos esenciales de virtud no se modificaron en ningún momento. Siguió animando, endulzando la vida de los que le visitaban, para que no sufrieran”, recordaría uno de sus más queridos discípulos, uno de los que le acompañó en este tiempo de declinar físico y anímico.

En noviembre, ingresado en el hospital mondragonés que él mismo había impulsado, José María aún pudo garabatear una máxima final en el lecho de su cercana muerte: “Mano con mano, mente con mente, renovados, unidos en el trabajo, por medio del trabajo, en nuestra pequeña tierra crearemos para todos



1976: Eskola Politeknikoan (61 urte).

En 1976: en Eskola Politeknikoa (61 años).

ingurune gizatiarragoak sortuko ditugu denontzako eta lur hau hobetu egingo dugu. Gure arteko berdintasun berrian, herrixka eta herria txertatuko ditugu; herria eta gainerako guztia: *beti aurrera*”.

1976ko azaroaren 29an, astelehen batean, euria ari zela, Jose Mariak bere otoitz gogokoenetako bat abestu zuen: *magnificat*. Ziur aski Mariaren nortasunarekin identifikatzen zen, Jainkoak bere borondate ahalguztidunari jarraitzen zion esklabo umil hari erreparatu baitzion. Ahots haritxo batekin errexitatu zuen kantuarien errepika, haren espirituak lagun hurkoaren zerbitzugintzan kontsumitutako gorputza atzean uzten zuen bitartean. Bi egun lehenago, bere azken gogoeta bukatzeko, hauxe idatzi zuen epitafio gisa: “Aurrera egiteko, eraldatu; estua dena zabaltzeko, bihotzarekin zabaldu; lurak zabaltzeko, bizikidetzatza handitu”. ●

entornos mas humanos y mejoraremos esta tierra. En nuestra nueva igualdad injertaremos la aldea y el pueblo; el pueblo y todo lo demás: *siempre adelante*”.

El lunes, 29 de noviembre de 1976, mientras caía la lluvia, José María entonó el *magnificat*, una de sus oraciones preferidas. Seguramente se identificaba con la personalidad de María, la esclava humilde en la que Dios ha puesto sus ojos y que se limita a seguir su voluntad todopoderosa. Con un hilillo de voz recitó su estribillo mientras su espíritu abandonaba su cuerpo consumido en el servicio al prójimo. Al terminar su reflexión final dos días antes, a modo de epitafio, había escrito: “Para avanzar, transformarse; para abrir lo estrecho, abrirlo con el corazón; para ensanchar las tierras, aumentar la convivencia”. ●

ISBN: 978-84-615-4947-4

Lege Gordailua / Depósito Legal: BI-3115/2011

Diseinu grafikoa / Diseño gráfico: Josan Martínez

Arrasate – Mondragón

Azaroa 2011 Noviembre



**“Inoiz ere ez gara zeruan
iratzarriko bertara nola
heldu garen galdetuz”.**

**“Nunca nos encontraremos
en el cielo preguntándonos
cómo hemos llegado allá”**



ARIZMENDIARRIETAREN | LAGUNAK

